

metereologia
euskalmet

euskara
lazarra

GEU

2,40 € 2009ko otsaila 192

natura
arabako natur institutua

mendia
felix baltistan fundazioa



inigo kalderon
alaveseko jokalaria



baietz

ezkerreko
alternatiba
abertzalea



ensueños loiniz

madre vedruna 18

vitoria-gasteiz 945 13 38 38

geu aldizkaria.
urteko kuota: 20.- euro.

sumarioa 192

geupertsonaia

iñigo kalderon, alaveseko jokalaria7-11

geugaia

euskalmet. adolfo morais13-16

bat4tan

fbf, felix baltistan fundazioa23-26

bat5etan

ani, arabako natur institutua29-33

euskara&historia

joan perez lazarragako34-35

beste:

musika zutabea19

gaztezulo20

geusex37

agenda, kaletik, euskaltasunean,
proposamenak, araba bixotzian,
historia eta idazleen zutabeak,
errezeta eta umorea



7-11



13-16



23-26



29-33

GEU

GEU aldizkaria | GEU Elkartean ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkariako taldeak egina, bideratua eta kudeatua | erredakzioa: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | geugaste@grn.es | geu@geugasteiz.com | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | kazetariak: edurne begiristain, ainhoa arriaga, naroa cuesta eta ane pedruzo | azaleko argazkia: edorta sanz | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: geu aldizkaria eta aztiri | maketa: d'alvez | umorea: iñigo sarasola | araba bixotzian: josean morlesin | gorka etxabe otadui, kike fdz de pinedo, xabier olaso, uhina, erlantz urtasun, maider garcia de bikuña (emaize sexologia zentroa), andoni rodriguez (diocesan-mendigorrotzako ostalaritza eskola) eta gaztezulo | publizitatea: idoia breñas, geu aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria | etiketak eta publizitate fk.: edurne begiristain, ebz | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper ekologikoaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



www.geugasteiz.com

zeregin euskaraz [otsaila]



GEU ELKARTEA

GEUREKIN MENDIRA

otsailak 15 igandea

OIZ mendia (1026 m/bizkaia)

*arratsalde erdira arte

lovaina plazatik/kotxez

ordua: 9:00

arduraduna: kike (945140158)

geurekinmendira@gmail.com

KULTUR ERROTA

otsailak 17 asteartea

kontzertua: KEU AGIRRETXEA

gasteizko KORRIKA KULTURALaren

programazioaren barruan

20:30 parral tabernan



IRAKURLE KLUBA

otsailak 26 ostegunarekin

AINGERU EPALTZA, BEZPERAREN

BEZPERA, PAMIELA 2007/XABIER

ZABALTZA, GU, NAFARROK,

ALBERDANIA 2007/ SANTI LEONÉ,

EUSKAL HERRIA IMAJINARIO

BATEN ALDE, ELKAR 2008

martxoak 26, ostegunarekin

FRANZ KAFKA, BIZIAN

ARGITARATUTAKOAK,

ALBERDANIA-ELKAR 2007

hikaateneoan, pintore kalea 13, 20:00

kontaktua: iban.zaldua@ehu.es

www.geugasteiz.com

geuelkarte@grn.es/945222153

ABTX09 SUSTRAIAK ERROTUZ

KANPORAKETAK

otsailak 21 larunbata

AMURRIO (arenalde etxean) 20:00

manex agirre, zigor enbeita, juan mari

juaristi, ruben sanchez, ekaiz

samaniego, serapio lopez

(g: lierni altuna)

otsailak 27 ostirala

OION (la cueva jatetxean) 20:00

asier otamendi, andere arriolabengoa,

alberto martinez "betto", xabi igoa,

ander solozabal, izar mendiguren

(g: idoia beitia)

otsailak 28 larunbata

ZALDUONDO (zeledon toki elkartearen)

20:30

iñaki viñaspre, oihane perea, rikardo

glz de durana, felipe zelaiaeta, iker

agirre, jagoba apaolaza

(g: lierni altuna)

FINAL AURREKOAK

martxoak 15 igandea

ZIGOITIA (kultur etxean) 17:00

(g: idoia beitia)

martxoak 22 igandea

ARAMAIO (kultur etxean) 17:00

(g: lierni altuna)

FINALA

apirilak 4 larunbata

GASTEIZ (principal antzokian) 17:00

www.bertsozale.com



MOKAUA

LOGELA MULTIMEDIA

otsailak 6 ostirala, 20:30

aldabe g.e-an. 2/4 euro

info+: euskera@gauekoak.com

/945204009

www.gauekoak.com



MIKEL URDANGARIN

'ANEK IDATZI DIT ZUTAZ'

otsailak 25, 20:30

principal antzokian. 18/16/6 euro



TXOROLEKU

(florida parkean)

ELMER, ELEFANTEA

(TXOTXONGILOAK)

(TEATRO DE LA LUNA)

otsailak 5, 17:00 & 18:30 (45')

3-6 urte (helduek lagunduta)/3

euro/edukiera: 75

www.vitoria-gasteiz.org/teatros

/945161045

EUSKADIKO ORKESTRA

'PLANETEN SOINUA'

[kontzertu didaktikoak]

9-10 urtetik gorakoentzat, ele bietan

otsailak 14, 18:00

principal antzokian. 6 euro

INALANBRIKAK

VAIVEN TEATROA

6-12 urte bitartekoentzat

martxoak 1, 18:00

principal antzokian. 6 uro



NONTZEFILMAK 2009

FILM LABURREN LEHIAKETA

filmak aurkezteko epea: otsailak 28

(13:00)

on line lehiaketa. lan onenak fant

2009an pantailaratuko dira

zinemarako film labor onenari 2000

euro

animazio film labor onenari 2000


euro

euskaraz egindako lan onenari 1000

euro

oinarriak & info +:

www.nontzeberri.com /944029092



LIBURUTEGI BIZIDUNAK

JAKINGURAK POESIA ERREZITALDIA

MARIA URIARTE & GERARDO

MARKULETA

otsailak 26, 19:30

iparralde g.e-an. doan

www.vitoria-gasteiz.org

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



montehermoso

MONTEHERMOSO.

-TAILERRAK (umeak & gazteak)

CMK TALDEA

larunbatero 11:00-12:30

doan, alde aurreko izen-ematea
8-13 urte bitartekoentzat

-TXIKIART

larunbatero 18:00

doan, alde aurreko izen-ematea
4-8 urte bitartekoentzat (heldu batek
lagunduta)

www.montehermoso.net

69 ABESTI JOLASTEKO

HIK HASI. CDa

euskaraz abestuz jolasteko 69
aukera berri

info +: <http://www.hikhasi.com>



WIKI-HISTORIAK

ARTEAREN HISTORIA GENERO

IKUSPEGITIK BERRERAIZ

>WWW.WIKI-HISTORIAS.ORG

euskal artearen inguruko emakume
artista eta bitartekariak bizitzaren ari
diren garai historikoaren berri
emateko gunea (kontakizunak sartu,
editatu, partekatu)

ARRAYTXIKI

WEB LABORATEGI BERRIA

<http://arraytxiki.com>

proiektua: <http://publikatu.com>

>euskaltube.com + bildu.net +

txioka.net + zerberri.com-en bilgune

>hilerro: fish&txips bilkurak

KULTUR CAMPUS

-FANTASIAZKO IPUIN LABURREN
XVII UNIBERTSITATE-LEHIAKETA
epea: apirilak 29

-FELIX UGARTE XVII ITZULPEN-
LEHIAKETA

epea: apirilak 29

info+: www.araba.ehu.es

KORRIKA16

(TUTERA-GASTEIZ. martxoak 26 --
apirilak 5)

euskaraz bizi nahi dugunon herrira!

KORRIKA KULTURALA

otsailetik aurrera

www.korrika.org

BISITALDI GIDATUAK EUSKARAZ

PAGOETAKO PARKE NATURALA
URDANETATIK ELKANORA IBILBIDE
GIDATUA

otsailak 21

urdaneta auzoko plazan elkargunea
(zarauzko azken portutik hartzen da
urdanetarako bidea)

9:30-13:30. doan

943835389/ www.aiapagoeta.com

MONTEHERMOSO KULTURUNEA

BISITALDI GIDATUAK

asteazkenero, 19:30 / larunbatetan,
13:00 (ez da beharrezkoa deitzea)
taldeak: asteartetik ostiralera, 18:00
(aurretik erreserba eginez)

[945161859 /

educacion@montehermoso.net]

bisitaldiaren hasiera: argibide

zerbitzuan

HAU EZ DA BISITA BAT

igandero 13:00

bisitarietk protagonismoa hartzen
duten zenbait dinamika bitartez
erakusketari buruzko diskurtso
berriak eraikitzen dira

www.montehermoso.net

ANDRA MARI KATEDRALA

945255135

www.catedralvitoria.com

GASTEIZKO ERDI AROKO HARRESIA

erreserbak: andramari katedralaren
bisitarien zentroan (945255135)

4 bisita eguneko (iraupena:

ordubete): 11:15/12:45/17:15/18:45
2 euro pertsonako

GATZ HARANA. GESALTZA AÑANA

astelehenetik igandera (jaieguna
barne):

11:00/12:00/13:00/16:00/17:00/18:00

bisitaldia euskaraz: 10 lagun baino
gehiagoko taldeak

helduak: 3 euro/lagundutako

haurrak: dohainik/taldeak: euro 1

945351111

www.vallesalado.net

ARTIUM



>ERAKUSKETEN BISITALDI
GIDATUAK

asteazken, larunbatero eta igandero
11:30
banako bisitariarentzat. doan. plaza
mugatuak

>TALDEENTZAKO BISITALDI
HITZARTUAK

derrigorrezkoa alde aurretik
erreserba egitea (73 euro)

>ARTIUM TXIKIA

(3-5 urte + helduak, igandeetan
12:15-13:30)

BIDAIA EGINGO DUGU?

otsailak 1

ROCK TALDEA BATERIA-JOLE

BATEN BILA DABIL

otsailak 8

ETA ZU, NOR ZARA?

otsailak 15

ZEIN KOLORETAKOA DA?

otsailak 22

ELKARREKIN LORTUKO DUGU

martxoak 1

>GOIZEAN ARTIUMEN

(6-11 urte + helduak, igandeetan
12:00-13:30)

NOLA JANZTEN ZIREN AITON-
AMONAK NIRE ADINEAN?

otsailak 1

MUSEOAN EZ NAIZ BAKARRIK
SENTITZEN

otsailak 8

NIRE MASKOTA

otsailak 15

MARI ETA LAMIAK

otsailak 22

ERAIKITZEN IKASIZ

martxoak 1

>FAMILIENTZAKO BISITA GIDATUAK

(5-11 urte + helduak/larunbat &
igandeetan 12:30-13:15)

NI, MARGOLARI

otsailak 7-8

ZENBAT GAUZA!

otsailak 14-15

BEHIN BATEAN, BAZEN...

otsailak 21-22

BADA HEMEN HEROIRIK?

otsailak 28-martxoak 1

info + erreserbak: 945209010

www.artium.org

G.E.A., 'GASTEIZKO EUSKARAREN
AGENDA' DIGITALA jaso nahi?

bidalguzu zure e-posta

geu@geugasteiz.com helbidera eta hilerro
jasoko duzu.

gasteizko euskarazko ekintzen bilduma da
G.E.A.

ezinbestekoa Gasteizen euskaraz
mugitzeko!

GEU elkartearen oharra

euskaldunon lan poltsan sartu nahi
baduzu, bidali izen-abizenak eta

kontakturako telefonoa

geuelkartea@grn.es helbidera

eskerrik asko!

kanGEUroak

umeak zaintzeko prest bazaude eman zure
izena zerrenda honetan eta zerbitzu hau

behar dutenak jarriko dira zurekin

zuzenean harremanetan. horretarako,

bidali geu@geugasteiz.com helbidera zure

izena, telefonoa eta ordutegia

(goizez/arratsaldez/gauzez/egun

osoz/asteburuak).



laguntzailea:

GIZARTE EKINTZA

Obra Social

Caja Vital Vital Kutxa

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



eguneko
menua



GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (Korre), 14
(San Migeleko pasabidea)
TI: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16
Tfnoa. 945 28 28 39
01002 GASTEIZ

dalvez



info@dalvez.com



azkarprint
Imprenta / Inprimategia

Landazuri, 7 - 945 23 30 01
GASTEIZ

♦ INPRIMATEGIA ♦

DIBUtec

Papertegi teknika

Landazuri, 7 - 945 13 06 07

Erramun
Argazki - Estudioa

Heracio Fournier, 23
(laborategia) 945 13 71 02

Askatasun kalea, 5
945 26 19 91

LA RIOJANA
on egin!!! **jatetxea**

bokatak,
pintxoak, kazuelatxoak
Aiztogile kalea (Kutxi), 33
tfnoa. 945 25 02 39

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza GASTEIZ

El Clarete
jatetxea



unai eta patri fdz. de retana

zerkabarren kalea, 18
gasteiz 945 263 874




Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



GASTEIZEN MENDIZORROTZA DA
GASTEIZTARREN SENTIMENDU BILTZAILEA ETA
ALAVES SENTIMENDU HORIEN ABIARAZLEA
1920 URTETIK. GAUR EGUN BIGARREN MAILAN
LEHIATZEN DABILEN TALDEA DUGU, BERE
ZALEAK LEHENENGO MAILARA NOIZ IGOKO ZAIN
DAUDELARIK. JOKALARIENA DA BATEZ ERE
ERRONKA HORI GAINDITZEAREN ARDURA ETA
TESTUINGURU HONETAN IÑIGO KALDERON
EZAGUTZEKO GARAIA HELDU ZAIGU.

IÑIGO KALDERON, ALAVESEKO JOKALARIA:

***“Futboleant gurtua izatetik bidelapur
izatera azkar asko pasatzen da”***

t. ane pedruzo

a. edorta sanz & hugo madariaga

ALAVES BETIKO

Iñigo Kalderon, futbolaren munduan Kalderon bezala ezagutua, eskuineko hegaleko defentsa dugu. Harrobiko jokalaria da eta Alaves C eta Alaves B-n jokatu ostean Alicante taldean egon zen 2007 urtera arte. Geroztik Alaves-en dago gogoz lan egiten. Ikus dezagun bere bihotzeko taldearekiko sentitzen duen mirespena norainokoa den.

Zer da Alaves zuretzat? Eta futbol- la?

Alaves nire hiriko kluba da, nire ametseta-ko taldea, nora lan asko egin ondoren heltzea lortu dudana. Futbola, berriz, nire bizi-tzaren zati garrantzitsu bat da, izan ere, nire lagunak onenak eta nire neska futbolari esker ezagutu ditut.

Nolakoa izan zen, da eta izango da Alaves?

Iraganetik UEFAn kopa nabarmenduko nuke, hura Alavesen zorioneko garaia izan baitzen. Gaur eguna zoritxarrez Piterman-en arrastoei markatzen dutela esango nuke. Etorkizuna une ilunetik gabeko denboraldia izan dadila espero dut.

Nola bizi izan zenuen Alicantetik Alaves eta Pitermanek osatutako bikotea?

Oso gaizki, Alavesen edozein zaleren moduan... Noizbehinka hainbat kidek egoeraren berri ematen zidaten eta ni indargabe sentitzen nintzen, sumindurik... Gainera ez naiz inoiz justiziaz fidatu eta egindako guztia kontuan harturik, momentuz oso gutxi ordaindu du Pitermanek.

Duela ia bi urte zure ametsa betetzea erdietsi zenuen, Alavesen jokatzea alegia; are gehiago, zure poltsikotik atera ziren Alicantetik alde egin ahal

izateko klubari ordaindu beharreko 20.000 euroak, hori bai kementa...

Beharrezkoa izatekotan berriz ere egingo nuke! Berez hasieran diru gehiago ordaindu beharra zegoen nire lekualdaketarako eta ni prest azaldu nintzen... Jendeak zorotzat hartzen ninduen! Futbola eta batez ere Alavesen erromantiko bat naiz. Pribilegiatua sentitzen naiz nagoen tokian egoteagatik, areago, nik doan jokatuko nuke futboleant!

Hilabete gutxitan entrenatzaile asko igaro dira Mendizorrotzatik, Josu Uribe, Jose Maria Salmeron, orain Manix Mandiola... Erraza al da bakoit- tzaren dinamikara ohitzea?

Bai, azkenean ohitzen zara. Egia esan egoera normala da, zaila baita urte oso batean zehar entrenatzaile berarekin egotea! Horregatik ni entrenatzaile eta kide bakoitzaren alderik onenarekin gelditzen saiatzen naiz, nire ustez hori baita ikasteko modurik egokiena.

“alaves nire hiriko kluba da, nire ametseta-ko taldea, nora lan asko egin ondoren heltzea lortu dudana

Futbol talde batek behar lituzkeen emaitzak lortzen ez dituenean nor- malean entrenatzailea da petxeroa, norainokoa da jokalarien ardura?

Topikoak dioenez errazagoa da pertsona bat botatzea 22 baino, baina nire ustez ardura eta errua gehienetan jokalariona da, ez entrenatzailearena.

Zer falta du Alavesek?

Agerian denez, partiduak irabaztea, izan ere, horrela guztiok lasaiago geundeko. Azken finean hersturak ondo jokatzea eragozten du. Gaizki egiten ari garela badakigu, baina hobetzeko grina gure egunerokotasunaren protagonista nagusia da eta horretarako lana ezinbestekoa da.

Eta zuk zer duzu faltan Alavesen?

Mendizorrotzak obrak egin baino lehen zeuden harmailan partiduak zutik ikusten zituzten zaleen aurrean jokatu ez izanak pena handia ematen dit, bertan sor-

tzen zen giroa sekulakoa zelako. Halere, zaleei ezin diet ezer leporatu, oso fidelak baitira eta igande batean, kalerako 0 graduko tenperatura egonik, zelaira etorri eta euren taldea animatzeak meritu handia dauka! Dena den gehiago izango balira hobe, 10.000 pertsona gutxienez, euren beroa oso beharrezkoa baitugu...

“lotsa ematen zidan euskara ez jakiteak. elkarriketak erantzut- erako orduan adibidez gure hizkuntzan erantzuteko gai izan nahi dut

Zu harrobiko jokalaria zara, zer-nola- koa da gaur egun Alavesek duen harrobia?

Gure harrobia aurreko agintaritzaren penagariaren ondorioak pairatzen dabil, izan ere, Alavesek atzetik datozen gazteen erreferentzia izan beharko luke eta gaur egun ez da. Ondorioz, jokari onenak ez dira klubean gelditzen. Zerbait egin beharko litzaiteke egoera aldatzeko...

Denboraldi honetan klubaren leloak bere ereserkiaren zati bati heltzen dio, “Resurge potente otra vez”, baina “Gloriosoaren” mamia bere horretan dagoela esango zenuke? Ala begirunea galdu zaio Alavesi?

Ez, oraindik ere Alaves klub errespetatu bat da merezi duelako, nahiz eta egun unerik onenean egon ez... Garrantzi handiko talde bat da gasteiztarrotzat.

Denboraldi honetan gehienetan titu- larra izan zara, baina partidu bat aul- kian edo harmailan bizi behar duzu- nean zer sentitzen duzu?

Askos urduriago jartzen naiz, jokatzen nagoenean adrenalina erretzen baitut eta eserita egonik ez... Harmailan nagoenean askotan ostikoak ematen ditut hesiaren kontra taldekideak lagundu nahian...

Gasteizen Baskoniak Alaves estaltzen duela ematen du batzuetan, ados al zaude?

Hein handi batean normala da, izan ere, Baskonia goi-goian dago eta gu ez...



a. hugo madariaga

Futbola: Hamaika jokalarik osatutako talde biren artean jokatzeko kirola, non erregela zehatz batzuk jarraituz baloia kontrakoan atean sartzea den helburu. Hona hemen kirol honen inguruan hiztegia aurki dezakegun definizioa. Ez dago zertan esan baina, futbolariek esanahi askoz sakonagoa duela. Futbolariek milaka sentimendu eragiten dituen kirola da, zelai batean uztartzen diren sentimenduak; poza, gorrotoa, tristura, urduritasuna, sumindura...

Gainera erosoagoa da Buesa Arenara joatea zure krispetekin eta mahuka motzetan, Mendizorrotzara hotza pasatzera joatea baino... Dena dela, Baskonia eta Alaves ez dira bateraezinak, Alavesen zalea betiko izango delako eta gauza bera Baskoniaren zaleekin. Fidelak dira oso.

Zer oroitzapen duzu iazko Errealaren aurkako partiduez?

Askotan gogorazten dut eta partidu horren bideoa behin eta berriro ikusten dut, oraindik ere ez baitut sinesten egun horretako miraria! 90. minutuan 1-2 galtzen joan eta ia ohartu gabe irabazi... zoramenaren izan zen... Egun hartan aulkian egon behar izan nuen eta negar zorian nengoen dena galduta ikusten nuelako, eta azkenean... partidu aparta!

Alaveseko jokalarien artean maitatuenetarikoa bat zara, baita kementsuenerarikoa ere, zure ustez taldeak zu bezalako jokalarik gehiago eta izartxo gutxiago beharko lituzke?

Denetarik egon behar du, bai langileak bai arkitektoak. Ni langilea naizela esango nuke. Sekretua jokalarik guztion indarra

uztartzeko datza. Talde osoak patroia berdina izatea ez da ona.

Alavesen zale amorratua izanik, zure futbolaririk kuttunena ezin zitekeen Antonio Karmona baino izan...

Nire ustez Karmonak azterna utzi zuen, ez soilik jokalarik gisa, pertsona moduan ere apartekoa baitzen. Umila zen eta batez ere langilea eta bere lorpenak egindako lanaren ondorio baino ez dira izan.

KALDERON GERTUTIK

27 urteko gaztea dugu Iñigo. Bere bizitza futbola da baina horrek ez du ikasteko mugatu. Escolapios eta Los Herran ikastetxeetan hainbat urtetan zehar ikasi ostean Soin Hezkuntzako Euskal Erakundearen kirol ikasketak burutu zituen. Egun Alavesen jokatzeaz gain, harrobiko jokalarien kirol psikologoa da eta gazte-

ek izugarri maite dute. Ibaian entrenatzen dutenean esaterako, bistakoa da etorkizuneko jokalariek eta Iñigok mantentzen duten harreman osasuntsua. Gehiago jakin nahi?

Noiz ohartu zinen futbolaria izan nahi zenuela?

Arrazoimena izan aurretik ere banekien futbolaria izan nahi nuela eta txikitatik eduki izan dut baloia hanka artean.

Eta zer-nolako izan zen zure senideen erantzuna zenituen asmoen berri izaterakoan? Futbolaz bizitzea ez da erraza...

Alavesen egon naizen arte, ez zuten guztiz sinesten nire ogibidea futbolaria izatea zela. Nire aitonak futbola utzi eta ikastea gomendatzen zidan behin eta berriro eta orain ordea ez du partidu bat ere galtzen! Dena den, eurei zor diet ikasketak amaitu izana, oso astunak izan baitziren, eta asko eskertzen diet! Pentsa zein puntutara ino aldatu den kontua non taldean gauzak txarto doazenean beraiek nik baino gehia-



a. hugo madariaga

go sufritzen duten!

Nolakoa zen Iñigo Kalderon umetan?

Oso bihurria eta beti baloi batekin hanka artean.

Zure bizarrak zeresan anitz ekarri izan ditu beti, Alaves I. mailara igo-tzearren moztuko al zenuke?

Hori lortzearen bizarra, ilea eta denetarik moztuko nuke! Edozein erokeria egiteko prest nengoke Alaves I. mailara bueltatze-arren, baina momentu honetan ia ezinez-koa da...

Iragandako gabonetan Euskal Selektzioak Euskal Herria izena izatearen alde sinatu zuten 165 jokalarietako bat zaitugu. Auzi horrek kritika ugari eragin zituen, eta azkenean partidua bertan behera gelditu zen. Une horretan euskal sentimenduak jokatzeko gogoak baino pisu handiagoa izan zuen?

Partidu hura politikak zapuztu zuen, eta jokalariei jokatu nahi ez izana leporatu ziguten. Nork sinetsi argudio hori? Ez genuen amore emango, ofizialtasunerantz aurrerapausoak ematean zetzan gakoa. Ez daukat nire burua erradikaltzat baina eus-

kal selekzioak maila internazionalen toki bat izan dezan nahi dut. Niretzat partidu ofizial bat jokatzeko ametsa litzateke, ez soilik jokalaria moduan, baita zale bezala ere.

“

gure harrobia aurreko agintari-tza penagarriaren ondorioak pairatzen dabil

Ohikoa da Kutxitik poteoan zurekin topatzea, Gasteizen ohikoak diren farra bikainak botatzerik al du futbol jokalaria batek?

Oso gutxitan... Asko zaintzen naiz eta bost beltz edan beharrean bi mosto hartzen ditut. Normalean gaueko hamaikak aldera etxera joan ohi naiz, etxean afaltzea gustatzen baitzait. Dena den, noizean behin farra on bat botatzea ere ez dago txarto, hori bai alkoholik edan gabe, ez baitzait larregi gustatzen. Nire ustez askoz garrantzitsuagoa da etxera heltzen zaren modua ordua baino. Edan gabe berdin-berdin dibertitzen naiz eta gainera

egindakoaz oroitzuz!

Eta jendeak kaletik ezagutzen zaituenean zer? Autografoak sinatzeaz asperturik al zaude dagoeneko?

Egunean zehar nahiko lasai ibiltzen naiz, baina gauean magikoki gauzak asko aldatzen dira, jendeak kaletik gelditzen nau, elkarrekin hitz egiten dugu... baina pixka bat bakarrik, eh? Eurengatik gau osoan zehar egongo ginateke berriketan baina ezinezkoa litzateke... pentsa! Ongi hezia izaten saiatzen naiz, izan ere, futboleko jokatzeko gain itxurak gorde behar ditudala uste dut, eta oso gustura gainera!

Azkenaldian euskara ikasten aritu zara eta euskalduntze prozesu horretan zure abizenaren lehen hizkia aldatzea erabaki duzu, Calderon izan beharrean, Kalderon zaitugu orain...

Lotsa ematen zidan euskara ez jakiteak. Elkarriketak erantzuterako orduan adibidez gure hizkuntzan erantzuteko gai izan nahi dut. Txikitan ez nuen ikasteko aukerarik izan eta oraindik ez da berandu...●

KALDERON GASTEIZTARRA

Gasteiztarra dugu Iñigo denboraldi batez Gasteiztik kanpo bizi izan den arren. Behin itzulita, seguruenik hirian emandako aldaketaz ohartuko zen eta horregatik Gasteizko itxuraldaketari buruz duen ikuspuntua ezagutu nahi izan dugu... Iñigo, zer deritzozu...

Tranbiari?

Oraindik ez dut erabili nahiz eta egunero ikusten dudana, egiten duen ibilbidea ez zait ondo etortzen eta. Halere, ez dut gaizki ikusten. Gasteizen guztiari ezetz esateko ohitura dugu eta nire ustez denbora hartu behar da gauzak epaitu aurretik. Igartzen diodan alde negatiboa hiri osora heltzen ez dela da.

Eraberritutako Andre Maria Zuriaren plazari?

Lehenengo lorategiak xarmangarriak ziren baina arreta handia eskatzen zuten. Zabaltasuna eta igarotzeko erraztasuna bilatzen zuten plaza berriarekin eta nire ustez lortu dute. Halere, Gasteizek plaza eraberritzea baino proiektu garrantzitsuagoak behar dituela uste dut, hala nola, alde zaharrean parking bat sortzea.

Alde zaharraren berrindartze planari?

Ondo deritzot, alde zaharra zaindu beharra dugulako baina nik marka ezagunetako hainbeste denda irekitzeari ekin aurretik etxebizitzaren bizigarritasunari helduko nioke, besteak beste, etxe huts asko baitago. Are gehiago, betiko dendak dira Gasteizko alde zaharraren izaera nabarmentzen dutenak, ez Adolfo Dominguez batek.

Auditorioari?

...

KALDERON EUSKALDUNA

Euskaltegian ikasitako guztia praktikan jarri eta hainbat galdera euskaraz erantzutera animatu zaigu Iñigo. Galdera errazak egiteko eskatu digu eta hona hemen egindakoaren emaitza. Trebea da gero Iñigo!

Futbolaz besteko zaletasunik?

Musika. Gitarra eta organoa jo izan ditut eta Alicanten nengoe-nean aspertzen nintzenez bibolinarekin animatu nintzen eta gaur egun horretan nago... Bestelako kirolak ere gustuko ditut, eskia, txirrindularitza, korrika... baina ez daukat praktikatzeko denborarik.

Abesti bat?

U2ko Bono eta Mariji Bligeren One.

Janari bat?

Janari txinatarra.

Misterrak ikusten ez zaituenean zer edaten duzu?

Bazkari bapo baten ostean patxarana, baina esan bezala ez naiz oso alkoholzalea. Fruitu-irabiaki batekin pozik nago.

Ametsik?

Dagoeneko amets bat lortu dut, baina eskatzearen Alaves I. mailan egonik jokatzeko gustatuko litzaidake.

Entrenatzen edo jokatzeko ez zaudenean, zertan zabil-tza?

Lagunekin, neskarekin, txakurrekin pasean... Dena den, etxean egotea dut gustukoen, oso etxezalea naiz. Gainera etxea behin erosita amortizatu beharra daukat, askok pentsatuko dutenaren kontra ni ere hipotekaturik bainago!

Futbolaria ez bazina, zertan egingo zenuke lan?

Beste motako kirolaria izango nintzateke edo eta kirol irakaslea, nire amak irakaskuntzan egiten du lan eta oso ondo bizi dela iruditzen zait-eta! Kar, kar!



KRISIA

KRISIA. HONA HEMEN 2009 URTEAN ZEHAR BEHIN ETA BERRIZ ENTZUNGO DUGUN HITZA. BAINA HITZ SOIL BAT IZATEAZ GAIN, ONDORIO LARRIAK ERAGINGO DITUEN ARAZOA DA MAHAI GAINEAN DUGUNA.

t./a. ane pedruzo

Azken aurreikuspenen arabera, Euskadiko ekonomiak aurten beherakada nabarmena pairatuko du eta langabeziak 14.000 pertsona berriren etxeko atara deituko du. Gainera, iragandako 2008ak ez zituen datu baikorrak utzi, izan ere, Araban langabezia % 42,95 areagotu zen, abenduan soilik % 6,88ko igoera izan zelarik. Momentuko egoerak enplegua erregulatzeko espedienteen berri ematen digu behin eta berriro, Cegasa, Mercedes, Sidenor... Enpresen zerrenda luzea da eta milaka langileren etorkizuna kolokan dago. Datuak datu, krisialdiaren inguruko iritziak biltzera kalera atara gara.

NOLA AURREIKUSTEN DUZU 2009. URTEA KRISIALDIA GAINEAN DUGULARIK?



ESTHER GARCIA, 23 URTE, GIZARTE LANGILEA

Nire ustez pixkanaka jendea langabezian geldituko dela ikusiko dugu, berez dagoeneko ikusten ari gara, eta gero eta ugariagoak izango dira hilabete bukaerara iristeko trabak. Krisialdi batek dakartzan ondorio latzenak pairatuko ditugu aurten; gastuen murrizketa, lehen mailako beharrak asetzeko zailtasunak... Halere, egoera normalduko delakoan nago, baina azken urteetako kontsumo mailara berriz bueltatu gabe. Krisialdi honek kontsumo neurrigabea eta espekulazioaren indarra gutxitzeko balioko du.



ARANTZA LOPEZ DE LETONA, 37 URTE

Gertutik bizitzen dihardugun krisialdi bat da gainean dugun honakoa. Nik neuk adibidez kalteturik ateratzeko aukera anitz dauzkat. Dena den, hobera egingo dugula argi daukat, ziklo bat delako. Hori bai, gastuen aldetik mugimendu murriztagoa egongo da, gutxiago irtengo gara... baina aurre egin diezaiokegulakoan nago.



CRISTINA LEAL, 59 URTE, SALTZAILEA

Argi dago krisialdi hau mundua menperatzen duten gutxi batzuek eragindakoa dela. Halere ziklo bat denez igaroko da, beste bat iritsi arte, baina hurrengoan banketxeek agindu ez dezaten saiatu beharko gara. Psikosia agerikoa da, jendea arduraturik dago, eta ez da gutxiagorako... 2009a gogorra izango da, beldur gara eta gainera bote-redunek ia ito arte estutuko gaituzte...

idazleen zutabea

ON JUAN ESKEKOA

t. xabier olaso



On Juan agure zaharra –mihi-luzeen esanetan markesen familiako seme etxekalte eta txorigaldua– *El Carmen* elizako atari nagusiko bazter batean egokitzen da batzuetan, zigarreta piztuta. Sasoiko zenean Donejakue bidean erromes ibili zeneko urritz-makila bertsua ur bedeinkatuaren ontziaren arrimuan bermatu, txapela erantzi eta eskean hasten da. Batzuetan, txapela zoruan utzita beroki zarpailaren kolkotik arrosario-katetxo aleduna ateratzen du ahapetik errezoan egiteko. Han aritzen da gizona aitagurea esan eta esan. Zahatetik ardo merkea dzanga-dzanga edan eta ezpainak milikatzen ditu sarri-sarri.

Baina, elizako sartu-irten jendetsuetan ibiltzen da eskuarki adi-adi on Juan, belarriak erne eta begiak zoli. Jendea atertu ere gabe dabilen egun horietan elizate ondora hurreratu eta txapel barreneko sosak inarroteaz batera erdi-kantuan hasten da:

Una limosnita
hijos de María
y que Dios os guarde
de noche y de día.

Ondotxo daki elizkoiaren bihotzak nola bigundu behar diren, amultsuki eta irribarretsu; badaki, jakin, gaztanbera bezain samur daudela elizatik irten berri-tan. Handik aldendu aurretxoan askok luzatzen dute txanpondun eskua agure zahararen txapel maiztura, eta gero, badoaz, jaungoikoa lagun.

Arrastirian elizara sartzen da on Juan, txapela bete diru, urritz-makila, zahato eta guzti, zortzietako mezatara. Sarrera orduko kandela piztu eta bide okre-rettik dabilen munduko arima guztien alde egiten du errezoan. Jaungoikoari behin eta berriz eskerrak ematen dizkio eguneko diru-uzta joriagatik. Zintzo-zintzo entzuten du predikua, erretolika guztia, hasi eta amaitu. Eta apaizak elizaren alde sakelak haztatze-ko una iritsi dela iragartzen duenean, on Juanek, batere damurik gabe, *din-dan*, atabakan hustutzen du txapel barrukoa ●

**ADOLFO MORAIS,
EUSKALMETEKO ZUZENDARIA:**

**“Orain
muturreko
abisuak askoz
gehiago
izaten dira”**

EGURALDIA OHIKO EZTABAIDAGAIA
DA EDOZEIN TOKITAN.

HERRITARROI GERO ETA GEHIAGO
INTERESATZEN ZAIZKIGU
EGURALDIAREN IRAGARPENEK. ETA
HORI DA EUSKALMET EUSKAL
METEOROLOGIA AGENTZIAREN
AURPEGIRIK EZAGUNENA. HAATIK,
IRAGARPENAK EUSKALMET-EK
EGITEN DUEN LANAREN %5 BAINO
EZ DA. ARABA, BIZKAIA ETA
GIPUZKOAKO METEOROLOGIA SAREA
PLANIFIKATZEA, MARTXAN JARTZEA
ETA MANTZENTZEA DA BERE
EGITEKORIK NABARMENENA.

HALAXE AZALDU DIGU ADOLFO
MORAIS ZUZENDARIAK (GASTEIZ,
1965). LANBIDEZ MATEMATIKARIA
DA, ETA 2005ETIK DA EUSKALMET-
EKO BURU.



t. edurne begiristain

a. edorta sanz

Euskalmeteko aurpeirik ezagunena eguraldiaren iragarpena egitea da, baina hori baino gehiago ere egiten duzue, ezta?

Erkidegoko sarea planifikatzea, martxan jartzea eta mantentzea da gure egitekoa. Argi esateko: gure web orrian bisita gehien jasotzen duen atala iragarpena da (% 95). Baina gure lanean, % 5 da iragarpena, eta % 95a dira bestelako lanak. Alegia, hiritarrek nahi dutena ez dator bat gure lanarekin. Joerak inbertituta daude. Eta hor arrazoi nagusi batzuk daude: alde batetik, sarea mantentzeak asko eskatzen duelako baliabide ekonomikotik, denbora aldetik, eta planifikazio aldetik. Eta, bestetik, iragarpen bat egin ahal izateko produktu asko martxan jarri behar direlako: konputazioa, eredu matematikoak, jendeak ondo formatuta egon behar du, protokolo zehatz batzuk jarraitu behar ditu iragarpena eduki ahal izateko, etab.

Dena den, eguraldiaren iragarpenari gero eta garrantzi handiagoa ematen dio gizarteak. Erantzukizun handia da zuentzat?

Bai, ardura oso inportantea da, batez ere muturreko meteorologia aurrean dugunean. Esaterako, abisuak emateko guk lan handia egiten dugu, saialdi handiak egiten ditugu abisuak ahalik eta zehatzen emateko. Izan ere, lan horrek guztiak azkenean ahalbidetuko du beste batzuen lana zehatza eta ona izatea. Kate horretan gu gara lehenengo atala, eta atal horretatik ateratzen den informazioa oso baliagarria da besteentzat. Noski, besteek lan egin dezakete nahiz eta informazio hori ez existitu, baina informazioa ona denean, orduan kate osoak hobeto funtzionatzen du. Zeregin horretan denbora asko pasatzen dugu, muturreko abisuak aurreikusten, muturreko meteorologia hori erantzun zehatz bat ematen, beste administrazioekin hitz egiten... horrek denak denbora asko eskatzen du.

Puntako teknologia eta infomazio sare zabala erabiltzen duzue, ezta?

Datuak jasotzeko Erkidegoko sare meteorologikoa erabiltzen dugu. Une honetan 100 bat

estazio meteorologiko ditugu sarea osatzeko. Baina horrekin batera, Kapilduin (Araba) gure radar meteorologikoa daukagu, duela gutxi tximistak detektatzeko gailuak martxan jarri ditugu, Araban bi sentsore ditugu, kostaldean ere kostaldeko sarea dugu, oso zabala dena, 6 estazio ditugu kostaldean, itsasertzeko 2 radar.... Halaber, zenbait egitasmo martxan jarri nahi ditugu, horietako bat da zunda-globoaren jaurtigailua, atmosferako zenbait mailatan informazioa lortzea ahalbidetuko diguna. Datozen urteetan jarriko dugu martxan. Bestetik, Estatu osoko perfiladore bakarra dagoeneko abian jarri dugu. Estatu osoan ez dago besterik. Radar bertikal bat da, eta atmosferako zenbait kilometrotan datu oso zehatzak ematen dizkigu, esaterako, haizearen hezetasuna. Informazio hori baliagarri da klimatologian eta eredu matematikoetan datuak sartzeko. Oso radar inportantea da, batez ere, estatu osoan besterik ez dagoelako.

“erkidegoko sarea planifikatzea, martxan jartzea eta mantentzea da gure egitekoa. gure lanean, %5 da iragarpena, eta %95a dira bestelako lanak

Nola funtzionatzen du Euskalmetek?

Meteorologia sarean dauden datuak Jaurritzak jasotzen ditu, eta datu horiek erabiltzen dira Euskalmeten iragarpena egiteko. Euskalmeten helburua da zaintza eta iragarpena egitea. Sareak ez ditu emango iragarpenik, 3 orduakoa edo 17 orduakoa, hori pertsonak egin behar dute, meteorologiek. Eta Euskalmetek egiten du iragarpen lan hori ere. Horretarako eredu matematiko konplexuak behar dira, baina horrekin batera ere, pertsonak erabiltzen dira informazio horren guztiaren analisisa eta iragarpena egiteko. Baina, bestetik, mapa osoa izateko zaintza, iragarpena, sarea eta planifikazioa ezinbestekoak dira. Hori guztia izanda, hutsune bat ikusten genuen: ikerketarena. Azken finean ikerketa egitasmoak burutzen ez badira besteekiko menpekotasun handia sortzen da. Urrats hori egin dugu, eta



bikoiztu egin dugu meteorologia arloan egiten den lana eta aurrerakuntza. Ikerketa plana etorkizuneko apustua da. Etorkizunean ikusiko dugu nola plan horrek etekin handiak eta onak emango dituen Euskadirentzat.

Adibidez?

Eszenatoki klimatologikoak ezagutu ahal izango ditugu. Hau da, hurrengo ehun urteetan Euskadin espero daitekeen eszenatoki klimatologikoa. Askotan hitz egiten den aldaketa klimatologikoak gure erkidegoan izan dezakeen eragina ezagutzeko aukera emango digu. Horretan ari gara lanean.

Beste autonomia erkidegoetan Euskalmeten antzeko meteorologia agentziarik ba al dago?

Gure antzeko bi bakarrik daude Estatuan: bata Galizian, eta bestea Katalunian. Ez dago besterik. Espainia mailan AENET dago, Espainiako agentzia meteorologikoa, eta Frantziak ere berea dauka. Europa mailan zenbait agentzia meteorologiko daude, baina maila handikoak dira: 2.000 edo 3.000 pertsonak lan egiten dute horietan. Euskalmet maila txikikoa da, Erkidegoko maila lantzeko bakarrik balio du. Horregatik hemen 29 pertsonak lan egiten dugu. Alderatzan baldin badugu agentzia handi batekin, argi dago gure kostuaren eta etekinaren arteko balantzea oso ona dela. Langile gutxiarekin, sare batekin eta jartzen dugun aurrekontuarekin egiten dugun lana oso estimatua da. Talde txikia gara, baina eraginkorra.

Garai batean ohitura eta tradizioa asko erabiltzen ziren eguraldia iragartzeko. Euskalmeten halako informazioari si-



nesgarritasunik ematen diozue? Non dago gizakiaren lana iragarpenetan?

Metereologia ulertzeko bi bide daude. Bide bat izango litzateke zientzia eta teknologia-rena, eta hor dago Euskalmet. Egungo eta etorkizuneko zientzian eta teknologian oinarritzen gara. Metereologia zientifikoa erabiltzen dugu. Eta garta-denborak, esaterako, beste metereologia mota bat da, metereologia kulturala da. Duela 200 urte ez zegoen teknologiarik eta zientziarik metereologia azaltzeko, eta orain egiten dugun iragarpena egin ahal izateko. Eta beraz, orduan egiten zen iragarpena kulturala zen, epe oso laburrekoa, eta beste datu batzuk interpretatuz egiten zen: esaterako, mendi batean zegoen hodei bat ikusita, euria zetorrela bazekiten. Baina horrekin ezin zaio erkidego oso bati erantzuna eman, ezin da epe luzerako iragarpen fidagarri bat egin. Eta, azken batean hori lortu ahal izateko, teknologia eta zientzia behar dira.

“datuak jasotzeko erkidegoko sare metereologikoa erabiltzen dugu. une honetan 100 bat estazio metereologiko ditugu sarea osatzeko

Maiz nahastu egiten ditugu eguraldia eta klima. Zer dira bata eta bestea?

Eguraldia eta klima oso desberdinak dira. Eguraldia epe laburrekoa da: orain, gaur, bihar, edo hurrengo egunetan gertatuko den metereologia da. Epe laburreko metereologia

EUSKALMET 5 URTEKO IBILBIDE OPAROA

Euskalmet Euskal Metereologia Agentziak 5 urte bete ditu. 2003ko abenduaren 16an sortu zenean, batez ere abisu metereologikoei aurre egiteko sortu zen, informazio hori eskuragarri izateko, eta hiritarrei informazioa emateko. Ordura arte, Eusko Jaurlaritzak barne informazio gisa erabiltzen zituen datu horiek guztiak. Baina, duela bost urte agentzia metereologiko bat egiteko aukera sortu zen, eta Euskalmet jaio zen, Adolfo Moraisek azaldu digunez. “Baliabide gehiago jarri ziren, sare zabalago bat jarri zen... eta horrekin guztiarekin azkenean lortu zen orain duguna, hau da, agentzia metereologiko propioa”. Azken urteotan Euskalmetek bilakaera handia izan du. Lehenengo urtea azkar pasa zen: “Kontuan hartu behar da lehenengo urteak normalean atea irekitzeko erabiltzen direla, jendea prestatzeko, aukeratzeko, ildo nagusiak zehazteko... Euskalmeten aurreneko urtea azkar pasa zen”. Gero, aldaketak etorri ziren, eta azkenengo lau urteak sarea planifikatzen eta zabaltzen eman dituzte. Dagoeneko, baliabide gehienak martxan dituzte eta Euskalmeten helburu nagusiak finkatuta daude. Duela bi urte ikerketa plana jarri zuten abian, radar metereologikoa duela 3 urte, orain dela 4 urte sarea ia amaitutzat eman zen.... Eta bosgarren urtearekin batera beste pauso bat eman nahi izan du Euskalmetek: “Bosgarren urtemugarekin batera, kostaldeko radarrak martxan jarri ditugu, kostaldeko sarea ongi planifikatu eta bukatutzat eman dugu, eta beraz, esan bezala, jadanik sare integral bat osatu dugu”. Agentzia metereologikoa ia %100ean osatuta dagoela dio Moraisek. Hiritarrek ere ezagutzen dute Euskalmeten produktua zein den: “Estatistiken arabera, konfiantza ere asko igo dugu. Beraz, gure lekutxo aurkitu dugula esan daiteke”.



da. Eta, klima, berriz, epe luzekoa da. Klima arloan garatzen da metereologia, baina epe luzera begira. Normalean 30 urte baino aro luzeagoak behar dituzu klimari buruz hitz egiteko.

Garai batekin alderatuta, Euskal Herriko klima asko aldatu da edo aldatzeko bidean dago?

XXI. mendea hartzen badugu, azken urteotan aldaketa handiak ikusi dira urte batetik bestera. Baina esan behar da hori ez dela horren ezohikoa. Klimaren jarrera ez da beti homogeneoa izaten, eta gure herrialdean gutxiago, aldaketa handiak daudelako. Aldaketa handiak izaten dira distantzia txikietan: esaterako, Iparraldean normala izaten da urtero 2.400 litro/m² botatzea, eta Arabako Errioxan batez bestekoa 400 litro dira urtero. Beraz, azkenengo hamar urteotan klimari erreparatzen badiogu ikusiko dugu urte oso desberdinak egon direla. Iazko otsailean, adibidez, hego haizea nabarmena izan zen, bero handia izan zen.



Aurten akaso gerta daiteke, baina ez da normalena. Pasa den urtean, esaterako, bi zati oso desberdinak izan genituen: batean euri asko, eta bestean ezer gutxi. Aldaketa hori gero eta gehiago ikusten ari da. Urteak ez dira konportatzen lehen egiten zuten bezala. Aurreko 30 urteak hartzen baditugu batez bestekoa egiteko, ikusiko dugu orain muturreko abisuak askoz gehiago izaten direla, urteak beroagoak izan direla, udazken oso oso euritsuak izan ditugula... Hori dena ongi zaindu behar dugu, datuak guztiz beharrezkoak dira gero ondorioak atera ahal izateko. Egia da mende honetan gauzak ez direla gertatzen ari ohikoa den bezala.

Klima aldaketak zerikusirik izango du, ezta?

Alde batetik, kontuan hartu behar da klima beti aldakorra izan dela. Beste gauza bat izango litzateke zenbat urtetan aldatu den, eta orain zenbat urtetan aldatzen ari den. Denboraldi hori areagotu egin den ala ez. Eta beste gauza bat da karbonoaren isurketarekin bat datorren edo horren ondorio den ala ez. Egia esateko karbonoaren isurketaren errua dela esaten dugunean, gu seguru gaude elementu batzuek eragina izan dutela egungo egoeran. Baina, hori ere ongi ulertu behar da. Ezin duguna da azaldu epe luzeko aldaketa bat epe motz batekin. Hori ezinezkoa da. Esaterako, ezin dugu esan aurreko elurteak klima aldaketaren ondorio direla. Klima aldaketak ekarriko ditu muturreko meteorologia gertaera gehiago, baina horietako zeintzuk izango diren klima aldaketaren ondorio ezin da jakin. Baina ekarriko ditu gehiago, eta ekarriko du teorien planeta osoaren beroketa bat. Gero ikusi beharko da Euskadin zein mailataraino berotuko den ala ez, eta hori beste esparru bat da. Ikerketa gehienak planeta mailan egiten dira, eta ondorioak ez dira berberak izango Ipar Poloan, EAEn ala Hego Afrikan.

Gasteizkoa izanda, ondo ezagutuko duzu hiri honetako klima. Alde handia sumatzen duzu gaur egungoaren eta garai batekoaren artean?

Aldatu da, bai. Azken urteotan neguetako tenperatura altuagoa izan da, eta horrek badauka bere eragina elurteetan, esaterako. Dena den, batez beste bizpahiru elurte iza-



ten dira negu batean, eta gutxi gorabehera kopuru hori bete egiten da orain ere. Beste kontu bat da orain gehiago ala gutxiago botatzen duen. Gasteiz asko hazi da, eta berokuntzak badu eragina elurteetan. Nola-bait esateko, hiriak badauka bere eragina kliman. Txikia nintzenean elurte izugarriak ikusten nituen, eta orain ez. Baina ez elurteak bakarrik, izozteak ere ez dira horren nabarmenak.

“klima aldaketak ekarriko ditu muturreko meteorologia gertaera gehiago, baina horietako zeintzuk izango diren klima aldaketaren ondorio ezin da jakin

Ni gogoratzen naiz Gasteizen behin irristaketa egin genuela San Frantzisko aldapan, eta inauteri batean 20 gradu zero azpitik izan genuela. Hura ere ez zen normala izan. Kontua da askoz errazago gogoratzen ditugula gauza horiek, besteak baino. Adibidez, ez zen ohikoa izan 2003ko abuztuan izan genuen tenperatura altua. Baina, zein neurritaraino gogoratzen gara aurreko udan gertatu zen meteorologiaz? Horrelako gertaerak aipatzen ez badira, ez ditugu gogoratzen. Nik uste dut memoriak paper inportante bat jokatzen duela, eta orain komunikabideek ere paper inportante bat jokatzen duzue, neurri batean. Donostiarrek gogoratuko dute urte askotan zehar duela gutxi izan zuten elurtea, eta gasteiztarrek ziurrenik esango dute aurten ez dutela ikusi garai bateko metro erdiko elurterik.

Aurtengo uda nolakoa etor daitekeen jakiterik ba al dago?

Jakingo bagenu! Kar, kar, kar! Oraindik gure prebisorik ez dugu. AEBetako agentziak eta Erresuma Batukoak mundu osorako prebisio hori egiten dute. Guk datu horiek irakurtzen ditugu eta aztertzen ditugu, baina gurea den halako iragapen bat ez daukagu. Hala ere, azpimarratu behar dut oso ondo ulertu behar dela iragapen hori. Ez da erraza ulertzea. Oso ohituta gaude gehienok epe laburreko iragarpena erabiltzen. Zergatik? Oso esanguratsua delako. Gaur goizean eguzkia egingo du, eta arratsaldean aldatuko da. Hori entzunda badakizu zer nolako arropa erabiliko duzun. Erabilgarritasuna da gakoa. Bestea, berriz, estatistikoa izango litzateke. Alegia, datorren uda beroa eta euritsua izango dela esateak zer esan nahi du? Ulertu behar da euritsuak esan nahi duela beste urteekin alderatuta euri gehiago egingo duela. Baina, zenbat? Ez da asko behar, baina gehiago. Eta gradu bat gehiago egingo duela nola ulertu behar da? Egutero gradu bat gehiago egingo duela ala orokorrean batez beste gradu bat gehiago izango dugula? Ez da erraza iragapen hori erabiltzea eta ulertzea. Noizbait izango bagenu epe laburreko iragarpen bat epe luzerako, erabiliko genuke, baina momentuz ez da posible. Teorikoki posible da 15 egunetarako prebisioa egitea. Baina hor fidagarritasun asko galtzen da, eta ez da oso erabilgarria. 10 egunetakoak fidagarritasun handiagoa dauka, 7 egunetakoak nahiko ona da, eta 3 egunetakoak da erabat erabilgarria eta fidagarritasun handia duena, eta hori da batez ere erabiltzen duguna. Guk eman dezakegu luzarorako prebisioa, baina gero jendeak daukan pertzepzioa ez da ona●

euskaraz bizi
nahi dugunon
herrira



16. korrika *æk*

Tutera-Gasteiz 09
marboaren 26tik apirilaren 5era

æk izan zaitez korrika laguntzailea

12 euroren truke,
garrantzitsuena lortu duzu:

**KORRIKA
LAGUNTZAILEA izatea.**

Honez gain pina eskuratuko duzu eta,
eskaintza orria betez gero, txartelak
ematen dizkizun abantailak ere bai.

www.korrika.org



laguntzailea:

GEU

JORDI SERRA GELI

“Beti amestu dut Euskal Herrian bizitzearekin eta azkenean ametsa errealitate bihurtu da”

KATALANA DUGU JORDI, GIRONAKOA ZEHATZ-MEHATZ. 32 URTE DAUZKA ETA BERE BIZITZA HERENA EUSKAL HERRIAN IGARO DU. IZAN ERE, 18 URTEREKIN, FILOLOGIA IKASKETAK HASI ZITUENEAN, EUSKARA IKASTEA ERABAKI ZUEN IZUGARRI ERAKARTZEN ZUEN HIZKUNTZA ZELAKO. EGUN IKAN EUSKARA IRAKASLEA DA, BAINA EZ DITU BERE JATORRIAK AHAZTEN ETA ASTERO KATALANA ERE IRAKASTEN DU LAGUN ARTEAN.

Horrela, hainbat telefono deiren ostean, Bizkaiko AEKrekin kontaktuan jartzea lortu zuen eta eurek Otik hasten zen euskara ikastaroa eta bizitokia lortu zioten. Ordutik urtero, uda aldean, Bilbora joaten zen urratsez urrats euskara ikastera. Era honetan ezagutu zituen bere “Bizkaiko lagunak” eta geroztik euren etxera joaten zen. Gasteizera duela 7 bat urte heldu zen Jordi doktoretza egitera, eta asko gustatu omen zaio, bertan bizi baita egun. Euskara, katalana eta gaztelera hizkuntza gutxi balira, Jordik arabiera ere badaki. Gasteizko meskitetan izan zuen hizkuntzarekin lehen hartu-eman eta geroago Libanora joan zen bere ezagutzak hobetzera. Sorpresaz beteriko kutxa bat dugu Jordi, ireki nahi?

Duzun biziorik handiena? Jatea, batez ere lagunekin otordu ederretan bat egiten dudanean.

Bertuterik? Entzuteko joera.

Akatsik? Hainbat... Perfeccionismoa agian.

Zer eskatzen diozu bizitzari?

Zoriontasuna.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik? Injustiziak eta ezjakintasunak.

GEU aldizkaria eta elkartearen berririk?

Noiztik? Aldizkaria euskaltegian ezagutu nuen. Geroago elkartearen berri ere izan nuen antolatzen dituen ekintzak direla medio.

Egunkari bat? Zalantzarik gabe Berria.

Telebista saio bat? Ia ez dut telebistarik ikusten, baina zerbait esatekotan Mihiluze.

Beldurrik? Asko.

Oporrak non eta zertarako? Alde batetik, Katalunian familiatz, lagunetz, herriaz, hizkun-



tzaz... gozatzeko. Bestetik, herrialde arabiar batean, hango kultura desberdinak ezagutu eta ikasteko. Ni beti ekialdera begira nago, hango pentsaerak izugarri erakartzen nauelako.

Nora ez zinateke joango? Afrika beltzera, beldurra ematen dit. Agian kooperazio proiekturen bat gauzatzera joango nintzateke, baina oporretan sekula ez.

Eguna ala gaua? Eguna. Goizak probetxatzea eta goiz altxatzea gustatzen zait (sekula lortzen ez badut ere... izarek irabazten naute, kar-kar!).

Gasteizko gaua non? Alde zaharrean betiere eta ahal izanez gero giro euskaldunean.

Liburu bat? Liburu asko dago... Azkenaldian Orhan Pamuk 'Elurra' irakurtzen nabil, Turkia barrenetik ezagutzeko leiho bat da. Horrez gain, 'Elif Shafak' ere aipatu beharra daukat, XX. mendean gertatutako eta oraindik ere Turkiarrek onartzen ez duten genozidio armeniarren berri ematen duen liburua.

Film bat? Zergatik? 'Lurra', Pakistan eta Indiaren arteko harreman txarren jatorria oso ongi erakusten duelako. Etnien arteko gorrotoak apurtutako maitasun istorio bat da.

Edari bat? Ardo beltza eta sagardoa.

Janari bat? Asko, eh? Pa amb tomata, akaso!

Kolore bat? Laranja.

Musika talde bat? Berri txarrak.

Kirol bat? Futbola.

Zer da Gasteizek duen onena? Parkeak eta eratzun berdea.

Txarrena? Hotza.

Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen? Bai jakina, nahi izanez gero. Hizkuntza bat hitz egitea borondate kontua da.

Amets bat? Kulturen arteko elkarbizitza.

Amesgaizto bat? Nire hizkuntzak eta kulturak desagertzea (Katalana eta euskalduna).

Iragana, eguna ala etorkizuna? Iragana gogoan, bizitza orainean, eta zirrara etorkizunean.

Zer eskatzen du herriak? Gauza asko. Besteak beste, demokrazia, bizi garen herri honetan ez baitago ezta tantarik ere!

Zer dira hizkuntzak zuretzat? Ondo pasatzeko baliabide bat eta aldi berean kultura bat ezagutzeko giltza. Kulturak ezagutzeak asko aberasten gaitu ●

proposamenak

cd

gora japon

08-azaroa

musika tresna gutxirekin eta ahotsekin egindako erritmo jolasak eta blues primitiboa ondu ditu gora japon bikoteak lehen diskoan. rock-a eta inprobisazioa lantzen dituzte. bi lagunek osatzen dute taldea; bikote basikoa: myriam (bateria, perkusio txikia, eta ahotsa) eta jonek (gitarra, tronpeta eta ahotsa). dimakoa (bizkaia) myriam, eta zumaikoa (gipuzkoa) jon. baina bilbon 2005

bukaeran sorturiko egitasmoa da gora japon. zortzi abestiz osaturiko lehen diskoa, taldearen izen berekoa, kaleratu dute bidehuts-en eskutik. grabaketa tolosako bonberenea estudioan egin zen? karlos osinaga, txap-en eskutik. lehen kontzertua eugene chadbourne-rekin (m.e.m jaialdian, 2005). hortik jazzaluz jaialdira (luz saint saubern, frantzia. 2006-vii-8), arteleku (donostia, 2006), zarata jazz taberna (santutxu, 2006), musikadero lehiaketa (zalla, 2006), villa de bilbao pop rock lehiaketa (bilbo, 2007), etab. «gustatuko litzaziguke jendea izerditan ikustea» diote.



komikiak

'animalien inauteria'

mundina

(itzultz: xabier armendariz)

saure-08

prezioa: 18 ?

www.ed-saure.com



komiki honetan tasmaniako tigreak abenturak kontatzen dira. mende bat lehenago desagertutako espezieetako bat dugu tigrea. baina ale bat dago bizirik oraindik. kasua hain da bitxia ezen ileordea duen epaile ingeles batek heriotza-zigorra ezartzen baitio tigreak. harrezkero tigreak ahaleginak eta bi egingo ditu "desagertutako animalien" paradisu aurkitzeko. ezkutalekutat erabiliko dituen inauterietan argitzen joango dira paradisu horren gakoak.

'eguzkiaren lasterketa'

txani rodríguez, nacho fernández & verónica rosado

(itzultz: joxean sagastizabal)

saure-09

prezioa: 16 ?

www.ed-saure.com



manuelen amak hotel ekologiko bat ireki du darwin hiriaren aldirietan, hara aldatu baita familia osoa. fast doktorea bertan ostatu hartu dutenetako bat da: zientzialari nabarmena da, eguzki-autoa diseinatu du eta lasterketa xeble batean parte hartzeko erabaki irmoa hartua du. manuelek bere abentura eta jokoetarako kide berriak ezagutuko ditu, ondoan izango baititu bere bizitzaren etapa berri horretan. ekologiararen aldeko kontzientzia sendo bat ernatuko zaio egun horietan manueki.

musika



ZELAKO PANORAMA!

t. uhina

Egunero gauza bera entzuten dut: Gasteizek daukan panorama kulturala oso urria da eta ez dago aukerarik!!! Kontzertu on bat ikusteko


Bilbora edo Donostiara joan behar dugu!!! Baina inoiz konturatu al zarete gero eta aukera gehiago ditugula hiri txiki honetan musika zuzenean entzuteko? Nire ustez azken bolada honetan, eta ez Udalak edo beste erakundeek antolatzen dituzten kontzertuei esker, baizik eta hainbat taberna eta areto apustu egin dutelako musika mota ezberdina aurkezteko eta beste hiri musikala eraikitzeko.

Horra hor, astelehenetan, Segundo deritzan tabernako folk jam session-ak. Asteartean, Parral tabernak oso kontzertu interesgarriak eskaintzen dizkigu, bai Euskal Herriko taldeak abiapuntu hartuta bai eskaintza zabala-goaz ere. Ostegunetan aukera anitzagoa da kontzertuei dagokienez: Gora Tabernan, Area 5 In, Abuelon, Extitxun eta, nola ez, Gaztetxean, beti dagoelako zerbait ospatzeko. Asteburua heldzearekin Iguana Kafan, Hell Doradon eta Ibu Hotsen, orain dela gutxi irekia, parada ezinbestekoa izaten dugu kalitatezko musika zuzenean entzuteko, eta doan. Epe laburrean Jimmy Jazz areto berrian ere ziur izango ditugula kalitatezko kontzertu eta ikuskizunak... Hau guzti hau irakurritz gero, zuek uste duzue ez dagoela musikazaleontzako aukerarik hiri honetan? Eta hori aipatzeko auzoetan egin ohi diren kontzertuak, non astero emanaldiren bat edo beste dagoen.

Udarekin batera, jazza zuzenean gozatzeko ordua helitzen da, Jazzharrean, Jazzaldia eta Minijazz programazioari esker. Eta orain arte uda bukatzerakoan, baina 09tik aurrera maiatzean, rockarekin beste hitzordu bat daukagu ARFn, benetan talde arrakastatsuak ikusteko parada bereziena.

Askotan Gasteiz hiri aspergarria den kexua entzuten da, eta aspergarria izan daiteke norberak aspergarri egiten duelako. Beti bezala panorama beltza edo zuria ikus dezakegu gure jarrerari esker, eta kasu honetan gainera panorama ezin daiteke politagoa izan. Gure esku dago hau guzti hau aprobeztatzea eta disfrutatzea... eta nahi duenak kritikatzeko ere! ●





DISCHORD RECORDS



30 URTEKO INDEPENDENTZIA



DISCHORD DISKOETXEAK 30 URTE BETEKO LASTER. MINOR THREAT ETA FUGAZI TALDEEN LAN GUZTIAK PLAZARATU DITUEN DISKOETXE HAU EREDU BILAKATU DA MUNDU OSOKO ZIGILU ALTERNATIBOENTZAT. OTSAILEKO GAZTEZULO ALDIZKARIAN, ERREPORTAJE POLITA TOPATUKO DUZUE MUNDUKO DISKOETXE INDEPENDIENTENARI BURUZ.



Laboa gaztea

Mikel Laboa handia gogora ekarriko dute otsaileko GAZTEZULOn. Irudi bizko erreportaje xume batez, musikariak gazteekin zuen konplizitatea erakutsiko dute. Mikelek belaunaldi gazteengan izandako eragina ez dta nolanahikoa izan: kolaborazioak hainbat talderekin, bere kantuen bertsioekin osatutako *Txerokee* diskoa... Otsaileko GAZTEZULOn, Mikel Laboari gorazarre.





2009ko

agenda digital



hila 12
eguna 24
ezabatu
gorde
✕

Sartu GAZTEZULO.COM
webgunean eta jaitsi
ezazu zure ordenagailura





Euskara, gure lurralde libre bakarra

araba@aralar.net • Kanpokale berria 4, behea • 945252631



ZURE HARATEGIAK



AIZPEOLEA

harategia
arraindegia
frutategia
okindegia

Florida Azoka 2 eta 3 TI. 945 13 24 48

Jose Luis
GARMENDIA
Harategia-urdaitegia

Andaluzia kalea 13 TI. 945 28 79 42
GASTEIZ

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak




Euskadik
behar zaitu



FELIX BALTISTAN FUNDAZIOA

ELKARTASUNEAN

mendia bide



TONTOR GARAIK, MENDIZALEEN ERRONKAK, DESIOAK, MUGA GAINDIEZINAK, IZOTZ ETA ELURREZKO HORMAK, HAIZEA, ELURRA, GLAZIAR ZABALAK, KOLOREDUN ZAPI SAKRATUAK, EMAKUMEAK, HAURRAK, GIZAKUMEAK, AURRERA EGITEKO BEHARRA, NAHIA, HORI GUZTIA DA BALTISTAN, OSAGAI ETA EZAUGARRI UGARI DITUEN LURRALDEA. BALTISTANEZ BERBA EGITERAKOAN OHITUAK GAUDE MENDI TONTORREZ ETA HELBURUEZ HITZ EGITERA, BAINA MENDIAZ GAINERA, BADIRA BESTE HARI ETA LOTURA BATZUK LURRALDE HAIEKIN. ETA BIDE EDO HARI HORIETAKO BAT DA ELKARTASUNA.



Felix Baltistan Fundazioa

t. gorka etxabe otadui

Igaro berri da mendiaren gaineko lehenengo zine jaialdia Gasteizen, eta mendiaren hamabostaldi horretan Felix Baltistan Fundazioko kideek euren jarduna erakusteko parada izan zuten Montehermoso jauregian. Taldearen helburuen berri eskaini zuten, alegia, nekazaritzaren, hezkuntzaren eta uraren gainean Baltistanen abian jarri dituzten proiektuen berri eman zuten fundazioko kideek. Besteak beste, Txema Camarak eta Alberto Iñurrategik parte hartu zuten agerpeanean, eta FBFren berri emateko aprobetxatu zuten.

Felix Baltistan Fundazioa 2001ean sortu zen, eta erakundearen helburu nagusia da tokian tokiko garapenaren alde lan egitea, eta horren baitan, Hushe ibarreko herrietako bizitzaren kalitatea hobetu nahi dute. Baltistanen dago ibarra, Pakistan iparraldean, Indiarekin mugan. Bertako bizilagunei eta taldearen adiskideei esker ona erakusteko gogoz eratu zen fundazioa, mendia izan dai-tekeelako elkartasun iturri.

Fundazioaren sorrera

Felix Baltistan Fundazioaren sorrera bi gertakarik bultzatu zuten: batetik, Felix eta Alberto Iñurrategi, Jose Carlos Tamayo eta Jon Lazkanok 1999an eginiko espedizioak Gipuzkoako Foru Aldundiaren sari bat jaso zuen, Nanga Parbat mendian (8.125) larri zaurituta zegoen Hego Amerikako mendizale bati laguntzeagatik. Oso egoera zailean eskainitako laguntza horren esker ona eman zien Aldundiak. Bestetik, 2000 urtean zorigaitzoko istripu batean Felix Iñurrategi zendu zen Gasherbrum (8.035) mendian. Jaitsieran erori eta han geratu da betiko Felix Iñurrategi. Bi gertakari horiek bultzatu zuten fundazioa-

ren sorrera, Felixen desagerpenak eta Aldundiaren sariak.

Felixen anaia Albertok eta bere lagunek ez zuten zalantzarik izan. Aldundiaren diru laguntza aprobetxatu zuten fundazioa sortzeko. Eta ordutik elkartasun lanean dihardute, proiektuak bultzatzen eta egitasmoak abian jartzen. Hasieratik, Matxuluko biztanleei laguntza ematea izan da asmo nagusia, haien eguneroko bizitzako oinarritzako premia batzuk hobetzen saiatzen ari da Euskal Herrian errotutako taldea. Hezkuntza, nekazaritza eta azpiegiturak dira jomuga eta arlo horietan dagoeneko zenbait lan egin dituzte. "Modu apalean bada ere, inguru haietara joandako euskal mendizaleoi eskaintzen diguten harrera onaren ordaina eman nahi izan diegu", diote Fundazioko kideek. Hain justu ere, Matxuluko eta inguruko herrietako ekonomia, gizarte eta kulturari laguntzeko bideak jartzen ari dira. Fundazioak, 2001ean sortu zenetik, garbi izan du laguntza eskaintzeko proiektuek zein filosofia izan behar zuten. "Matxuluko herritarrei garatzen laguntzeko baliabide eta azpiegiturak eskaini nahi dizkiegu".

Babes handia Euskal Herrian

Taldea sortu zenetik babes handia jaso du Euskal Herrian eta gure mugetatik kanpo. Gaur egun, bostehun bazkide laguntzaile inguru ditu, eta horietako asko enpresa pribatuak eta erakunde publikoak dira. Euskal mendizaleen artean ere jarraitzaile ugari ditu, izan ere, gero eta gehiago dira guretik Baltistan eta Himalaya aldera egiten duten mendizaleak. Gasteiz eta Araba osoan ere baditu bazkide laguntzaileak, mendizale eza-gunak eta ez hain ospetsuak. Hori bai, guztiek dute helburu bakarra, elkartasunean mendia bide izatea.

Gaur egun, fundazioa hiru arlotan ari da lanean, **ura**, **hezkuntza** eta **nekazaritza**, eta arlo bakoitzean zenbait proiektu dituzte exekuzioan. Urari dagokionez, aipatu beharra dago Baltistanen direla munduko mendirik handienetakoak, eta glaziarrek ere bertan hartzen dutela azalera zabalea, poloak alde batera utzita: haatik, hori hala izanik ere,



inguruetako klimaren ezaugarri nabarmenetako bat euri gutxi egitea da, 200 ml baino gutxiago botatzen baitu urtean. Horren eraginez, eskualdea ia desertuaren eta lehorra-ren artekoa da, baina desertuarekin antz handiagoa duena.

Edateko ura Balaygonera

Matxulutik sei kilometrora dago Balaygon herria, 1.210 biztanleduna da eta Hushe ibarreko txiroenetako bat. Fundazioa bertako



herritarrekin lankidetzan ari da, herrira edateko ura eraman ahal izateko, eta lanak auzolanean ari dira egiten. Saling-era ere eraman nahi dute edateko ura. Ortuak ureztatzeko ubideetako ura edaten zuten lehen, eta ur hori zuzenean Hushe ibaitik hartutakoa zenez, osasun arazoak sortzen zituen. Baina 7 kilometroko sarea jarri ostean, etxe

beste, gaur egun honako proiektuekin ari dira lanean: Green Mountain School, Hezkuntzako plan integrala, Eskolako garraioaren aldeko proiektua, neska gazte-txoendako bekak, Goi mailako ikasketak egiteko bekak eta emakumeentzako prestakuntza-zentroa.

Green Mountain School

Soberan dago aipatzea, lotura estua dute la Baltistanek, bertako biztanleek eta mendiak. Diru-iturri nagusia da haientzat. Hori horrela izanik, eta bertako bizilagunek mendiko lana behar bezala egiteko, gutxieneko batzuk jakiteko beharra dute, eta lana segurtasun neurri minimoez eta duintasunez egiteko mendiko erreskate nahiz bestelako lanetarako tekniken berri emateko eskola jarri du abian Fundazioak. "Proiektua arrakastatsua izaten ari da, eta mendia ogibide duten pertsonentzat lagungarri izaten ari da".

Gainera, beste zenbait arlotan ere hezkuntza proiektuek babes handia jaso dute. Besteak beste, eskolako garraioaren alde, ikasleei Khaplu herrira joateko aukera eskaini diete. Txema Camararen esanetan, "Oso garrantzitsua da honako proiektua. Izan ere, lehen hezkuntzako ikasketak amaitzean, ikasleek herritik alde egin behar izaten dute, beraientzat oso garestia delako ikasten jarraitzea eta gehienek ikasteari uzten diote". Fundazioak garraibideak jarri dizkie.

Emakumeen aldeko proiektuak

Emakume zein neska gazteei laguntza eskaintzeko ere indar eta ahalegin berezia egin nahi du Felix Baltistan Fundazioak.

"Emakumea eta emakumeen ingurunea oinarri duten ekimenak bultzatu gura ditugu. Kontua da, Baltistango emakumeak ez direla gainontzeko herritarren maila berekoak, kulturak, gizarteak eta erlijioak baztertzen dituelako. Hori horrela izanik, FBfren proiektuetan ekintza zehatzak finkatu ditugu arazo horri aurre egiteko, emakumeei bekak emanaz eta laguntza berezia eskainiz txiki- txikitatik."

Beste arlo batzuetan ere lan egiten du fundazioak eta horietako bat da nekazaritza. FAOren datuen arabera, pertsona bakoitzak urtero 500 kg garagarren baliokidea behar du urtero bizi izateko (Nutrizioaren Neurri Estandarra). Matxulun guztira eskuratzen den gari kopurua 350-700 tona artekoa da, bertan dauden 200-400 hektareatan. Kontuan izanda Matxulun 6.000 pertsona bizi direla, 2.700 tona beharko lirake beharrei aurre egiteko. Hori da errealitate gordina eta horri aurre egin nahi diote Fundazioko kideek.

Nekazaritza arloko ekimenak

Inazio Arregi Fundazioko presidente ohiak nekazaritza arloari garrantzi handia eman nahi dio. "Turismoa garrantzitsua da Makulun eta Baltistanen, baina, beren kabuz bizi nahi badute, nekazaritza proiektuak beharrezkoak dira". FBf beharrezko tresnak jarri nahi dizkie eskura, gutxikagutxika sistema ekonomikoa aldatzen lagundu, eta nekazaritza gainera beste baliabide batzuk ere erabiltzeko, eta abelazkuntzari eta turismoari bideak irekitzeko.

Arlo horretan fruta-arbolen optimizazioa bultzatzen ari dira. Ereduzko landaketa-sistema garatu da, prestakuntza eskaini zaie, eta albertxigoak, gereziak eta sagarrondoak



guztietara, 1.000 biztanle dituen herrian, edateko ura eraman diete.

Hezkuntza arloan ere egitasmo ugari abiarazi ditu FBf. Fundazioko kide den Txema Camararen esanetan, "komunitatearen garapenaren alde egin nahi badugu, ezinbestekoa da komunitate horiek beren burua kudeatzeko duten gaitasuna hobetzea". Hori dela eta, hezkuntza-proiektuak abiarazi dira, denek aukera gehiago eta hobeak izan ditzaten, guztiek heziketa jasotzeko modua eskura dezaten. Besteak

nola inausi ere ikasi dute, horrela uzta hobea izan dadin. Barazkiak zaintzeko prestakuntza teknikoa eman zaie, lekuan lekuko produktu onenak erabiltzea sustatu da, eta uzta bakoitzak behar duen ongarriaren berri eman zaie.

Gainera, hitzarmena sinatu da Hunza eta bailarako Mountain Fruits Company elkartearen artean, albertxigoa kalitatezko estandarren barruan lehortzeko aholkularitza teknikoa eta gaikuntza eskaini eta prozesuaren jarraipena egin dezan Mountain Fruits Company-k.

Fundazioko kide egiteko aukera

Hori guztia da Felix Baltistan Fundazioa, mendia baino askoz gehiago, baina mendia bide duen erakundea. Elkartasunak mugarik ez duelako eta laguntza emateko arloak ere hamaika direlako. Elkarrekin hedakuntza polita izan du azken urteotan Euskal Herri osoan, hego zein iparrean, baina hazten jarraitu nahi du eta proiektu berriak egin nahi ditu Baltistan inguruan. Horretarako, herritar,



Bazkide egiteko bidea oso erraza da, baita elkartearen gaineko informazioa jasotzekoa ere. Izan ere, sarean webgunea badute, www.felix-baltistan.org helbidean duzue fundazioaren gaineko informazioa eta bazkide egiteko bidea. Elkartasunean mendia bide delako.

erakunde eta enpresen beharra dute. Inaxio Arregirentzat oso garrantzitsua da Euskal Herri osoan izatea bazkide laguntzaileak. "Hedapenaren ikuspegitik gustura gaude,

baina, uste dugu babes handiagoarekin proiektu gehiago egin ditzakegula, eta erronkak merezi du" ●

BETAURREKO GRADUATUAK: 77,00 € kristalak barne

MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTI OPTICAS

Andre Maria Plaza t. 945 23 24 48
Olagibel, 33 t. 945 25 40 84
GASTEIZ



Eskaintzak 2009-02-28ra arte balio du



argantzón



ikastola

www.argantzónikastola.net



INGELESA eleanitz proiektua (4 urtetik aurrera)
MUSIKA HEZKUNTZA 3 urtetik aurrera
IKASMATERIALAK euskal herriko ikastolen konfederazioa
ADINA 1-6 urte
ORDUTEGIA 8:30tik 17:00ra
PREZIOAK sarrera kuota * 60 €/hilean familiarik
 0-3 urte * 140-170 €/hilean (orduen arabera)
 3 urte * 70 €/hilean
 4-5 urte * 80 €/hilean (ingelesa dela eta)

HIZKUNTZA EREDUA euskara
TALDEKATZEA talde txikiak * 8-15 haur
JANTOKI ZERBITZUA 1-2 urte (etxetik ekarritako janaria)
 2-6 urte (catering - 3 €/eguneko)

AURREMATRIKULARAKO EPEAREN AMAIERA

martxoak 20

01/23 LIVING TOGETHER
05/03 Elkarbizitzarako
 estrategiak

02/06 PASAHITZAK
05/31 6. zikloa

02/06 NEXT:
03/29 PRESENTACIONES //
 AURKEZPENAK //

Daniel Baker
 Marcus Coates
 Gardar Eide Einarsson
 Nicole Eisenman
 Claire Fontaine
 Dora García
 Delaine Le Bas
 Josephine Meckseper
 Mai-Thu Perret
 Société Réaliste
 Paula Trope
 Eulàlia Valldosera
 Lynette Yiadom-Boakye
 Artur Żmijewski

KOMISARIOAK //
 Xabier Arakistain + Emma Dexter

**EMBODIED
 ENACTMENTS**
 Bideo performance feminista
 Kanadan, 1974-2007 //

Lisa Steele
 Kate Craig
 Sara Diamond
 Cathy Sisler
 Nikki Forrest
 Manon De Pauw
 Jin-me Yoon
 Jillian Mc Donald

KOMISARIOA //
 Renee Baert

RESIDUOS COMO YO
 Juan Pablo Ordúñez / Mawatres

THINK LOCALLY FUCK GLOBALLY
 Daniel Llaría / Anorexia Mental

04/03 NEXT:
05/31 PRESENTACIONES //
 AURKEZPENAK //

TODOS LOS DÍAS SON ANODINOS
 Carlos Valverde

HEAR NOTHING, SEE NOTHING, SAY NOTHING
 Ibai Fernández-Valdés Villa



montehermoso fray zacarías martínez, 2 01001 vitoria-gasteiz +34 945 161 830 montehermoso.net

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

UNAI ZIARRETA
LEHENDAKARI HAUTAGAIA



IN
DEPEN
DENTEA **ILUSIOA BERPIZTUZ**





ian ani

Instituto Alavés de la Naturaleza Arabako Natur Institutua

LEKURIK EGOKIENA BILATZEN DUTE TXORIEK HABIA ERAIKITZEKO. BADIRA ERE TXORI MIGRATZAILEAK, EGURALDIAREN ARABERA HEGAN EGITEN DUTENAK. TXORIEN ANTZERA GIZAKIOK GURE HABIA BILATZEN DUGU NEGUA, GAUA, EGUNA EDO ARRATSALDEA PASATZEKO. LIBURU, LANDARE, TXOSTEN ETA HARRIEN ARTEAN IGAROTZEN DITUZTE ORDUAK ARABAKO NATUR INSTITUTUKO KIDEEK. HOGEI URTE BETE ZITUEN IAZ ELKARTE HONEK, BAINA JAIO BERRI BATEN ANTZERA INGURUA MIATZEKO JAKINGURAK GIDATZEN DU ORAINDIK ERE. ESPAZIO NATURALA DA EUREN HABIA.



nick gardner ani-ren idazkaria

ABERASTASUNAREN GORDAILU





a. antonio gonzalez



a. brian webster



a. mario laurino

t. naroa cuesta

a. edorta sanz & ani

Jakin badakigu ingurumena babestea garrantzitsua dela. Aitzitik, gizakiaren beharrak asetzeko suntsipenaren bidea izan da askotan hautatua. Gure nahietara makurtutako baliabidea izan da natura urteetan, eta dagoeneko, atzera bueltarik ez dago. Hala ere, oraindik orain, badira Euskal Herrian aratz mantentzen diren espazio naturalak. Bazter horien garrantziaz jabetu beharra dugu; haien jabe sentitu gabe.

Bide-erakuslea

Badira naturarekin harreman berezia mamitu duten pertsonak; ingurumena aztertu, babestu eta maitatzen dutenak. Horietako batzuk elkartu eta 1973 urtean AEPNA (Arabako Natura Ikertzeko eta Zaintzeko Elkarte) sortu zuten. Urteetan aritu ziren mendi, zelai eta basoetan materiala jasotzen. Baina bildutako laginak gordetzeko ahalmen murrizta zuen elkarteak; espazio fisiko mugatua, alegia. Hortaz, erakunde publikoen laguntza jaso zuen. 1986ko maiatzean Diputazioaren Kultur Kontseiluaren babespean Natur Zientzien museo inauguratu zen. Non eta Gasteizko Otxanda Dorrean. Arabako Diputazioak eraikin hori eskaini zien elkarteko kideei museo bat eraikitzeko asmoz eta hamarkada batean bildutako materiala modu egokian gordetzeko. Urtebete beranduago lehenengo erakusketa iraunkorra prest zegoen.

Arabako Natur Institutuaren sorrera

Museoaren zein elkartearen bizitzan urte berezia izan zen 1988a. Natur Zientzien museoaren finantzaketa eta funtzionamendua berregituratu zen. Elkartearekin harreman berezia mantendu bazuen ere, ente autonomoa bilakatu zen. Arabako Natur Institutua jaio zen orduan AEPNaren lekuko hartuz.

Hasierako urteak ez ziren errazak izan museo berriarentzat. Guztiarekin ere, 1993tik aurrera aldi baterako erakusketek Otxanda Dorrearen gelak bete zituzten, eta horrela, bisitari kopuruak gora egin zuen. Urte horietan guztietan ANIk (Arabako Natur Institutuak) egindako ikerketa asko izan ziren museoan. Museoarentzat ekarpen interesgarria izateaz gain, elkartearen fondoak biltzeko leku egokia da.

Habiak bizirik dirau

Hogeitaz urte bete zituen iaz ANIk. Bi hamarkada hauetan helburuak eta filosofia bere horretan mantendu dira:

- Ingurumena ikertu eta ezagutu, bai alderdi puruan bai aplikatuan.
- Ezagupenak eta ikerketetan lortutako emaitzak zabaldu.
- Ondasun naturala babestu erakundekin elkarlanean arituz.

Araba euren berezko esparrua da. Dena dela, Euskal Herriko zazpi probintzietako ikerlanak burutu dituzte. Baina, nondik hasi natura arakatzen?

“naturari egiten zaizkion kalteen berri izatea natura babesteko ezinbesteko gakoa da

Metodologia eta pazientzia

Botanika arloan egindako ikerketa baten adibidea azaltzen du Nikolas Gardner, ANIko idazkariak. Lehendabizi leku jakin bat zehaztu behar da. Bertan aurki daitezkeen landareak aztertzen dira gero. Ondoren, landareak osorik jaso, prentsatu eta elkartearen egoitzara eramaten dituzte. Identifikazio lana dator jarraian. Horretarako belategiak tresna ezin hobea dira. Ikerketaren helburu den espazio jakin horretan jasotako landareak eta belategian daudenak erkatu egiten dira. Bada, espazio natural horretan dauden landareak identifika daitezke.

Belategiak

Belategietan landareen laginak gordetzen dira. Arabako Natur Institutuaren egoitzan belategi txiki bat dute bazkideek, altxor gisa. Handia, ordea, Natur Zientzien Museoan dago. Nazioarte Mailako aitorpena du azken honek. Bi landareen arteko desberdintasunak antzemanekinak suertatuko lirarteke lagin bilduma hauen laguntzarik gabe.

“Ikerketa honek euskal herriko 3.500 landare espezie ezberdinek ezagutzea ahalbidetu du

Dibulgazio lana

Espazio natural baten ikerketa ez da hemen amaitzen. Ikertutakoaren berri ematea funtsezkoa da elkartearen kideentzat. Leku jakin batean ematen diren aldaketak beste zerbaiten adierazle izan daitezke. Esate baterako, “klima aldaketarekin batera botanika arloan aldaketa ugari agertuko dira”, diosku Gardnerrek. Naturari egiten zaizkion kalteen berri izatea natura babesteko ezinbesteko gakoa da.

Lan eskerga egin dute Arabako Natur Institutuko kide batzuek ‘Euskal Herriko Landareak’ liburua argitaratzeko. Zazpi Probintzietako Gakoak jasotzen dira ber-

tan; bost pertsonaren zazpi urtetako lana. Itzela. Ikerketa honek Euskal Herriko hiru mila eta bostehun landare espezie ezberdinek ezagutzea ahalbidetu du. Halaber, arrakasta handiko liburua izan da estatu osoan.

Ikerketa esparruak

Botanika arloa indartsu izan da beti Arabako Natur Institutuaren lanetan. Baina badira bestelako ikerketa esparru garrantzitsuak, besteak beste, ornitologia. Araban negua pasatzen duten txoriak zenbat eta zeintzuk diren izan da elkarteko kide baten



a. jose luis albalá



a. josean gainzarain

Iturrieta



TXOTX!!

bertako sagardoa

OSTEGUNETIK HURRERA
IREKITA.
Gainontzeko egunak,
enkarguz.



Sagardotegia



otsailak 13. KONTZERTUA
FERMIN BALENTZIA

ITURRIETA BASERRIA - ARAMAIO (ARABA) TL.: 945 445 385 - 685721593



a. brian webster



a. antonio gonzalez



a. antonio gonzalez



a. antonio gonzalez

lau urtetako buruhaustea. Ehun eta berrogeita hamar txori baino gehiago behatu ditu eta jasotako informazioa 'Arabako txori negutarrak' argitalpenean zabaldu du.

Bestelako ekintzak

Dibulgazio lana hagitz garrantzitsua da bazkideen esanetan. Txostenak, argitalpenak... kaleratzeaz gain, bestelako ekintzak ere baliagarriak dira oso euren ekarpenak hedatzeko. Hala nola, natura behatzeko antolatzen dituzten irteerak. Iaz hamabi bat irteera egin zituzten. Gehienetan arlo jakin batean jakitun den bazkide batek zuzentzen du irteera. Euren arteko harremana sendotzeko modu egokia ere bada. Normalean ez dira ibilaldi masiboak izaten. "Txorien kantua entzutera bagoaz ezin gara tropelean joan... ez baita txoririk geratuko", diosku Nikolas Gardnerrek.

“botanika arloa indartsu izan da beti arabako natur institutuaren lanetan. baina badira bestelako ikerketa esparru garrantzitsuak, besteak beste, ornitologia

Erakundeekin elkarlanean

Eusko Jaurlaritzarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin dute ANIko bazkideek harremanik estuena. Batzuetan erakunde hauek espazio eta baliabide naturalak nola kudeatu behar diren jakiteko urteroko lanak eskatzen dizkiete. Esaterako, erakundeek plantatza edo proiektu bat aurrera eraman aurretik ingurumen inpaktua neurtzea beharrezkoa dute, horrenbestez, elkarteak alegazioak aurkezteko aukera du inguru naturala

ikertu ostean. Bestetan, elkarteak proposatzen ditu ikerketa lanak eta botere publikoek finantziazioa eskaintzen dute.

Zenbat buru, hainbat aburu

Egun, ehun eta hogeita hamar bazkide ditu ANIK. Naturaren antzera heterogeneok dira oso. Batzuek natur zientzietan formazio profesionala dute, beste batzuek, aldiz, interesa. Gazteak, jubilatuek, unibertsitateko ikasle eta irakasleak... denak bildu dira helburu jakin batekin: natura ikertu, babestu eta ezagutarazi. Zenbaitzuek ANIren egoitzan igarotzen dituzte ordu luzeak; bakoitzak bere zereginetan. Liburutegian biltzen diren txostenak behatzen, Arabako kobazuloetan aurkitutako aztarnak identifikatzen, webgunean ikus daitezkeen artikulak prestatzen... Arlo desberdinak garatzeko aukera eta beharra dago elkarteetan. Era berean, ANIrekin harreman birtuala garatu duten bazkideen kopurua handitu da azkenengo urtean. Iaz, saregunearen laguntzaz, www.ian-ani.org webgunea estreinatu zuten. Webgunea elikatu beharra dago eta zeregin horretan ari dira orain. Erakunde publikoen laguntzez gain, bazkideen kuota eta Vital Kutxaren babesa du Arabako Natur Institutuak.

Klimen arteko talka

Isolatutako paraje gutxi geratzen dira Araban. Alta, badira gizakiaren eragin eskasa pairatu duten esparruak. Eredu naturalak lirateke hauek. Izan ere, espazio berde guztiak ez dira naturalak. Hirietako parkeak, esaterako, hiritarren mesederako egindako eremu berdeak dira baina berezko ezaugarriak ez dute ANIko kideen ustetan.

Botanika arloan ezin aberatsagoa da gure

TREBIÑU SAGADOTEGIA

EGIN TXOTX!

SAGARDOTEGIKO MENUA

ASTEBURUTAN IREKITA. DEITU AURRETIK

Trebiñuko ASKARTZAN

945244852 / 657736599





herria, izan ere, klimak eragin handia du landareengan. Klima kontinentala eta mediterraneoaren arteko mugan kokatuta dago gure lurraldea, eta Nikolas Gardenerrek azaldu bezala, "mugetan gauza arraro anitz aurki daiteke".

Natura aztertzekeo esparru interesgarriak eskaintzen ditu Arabak, Añana Gatzaga kasu. Urrunetik heltzen da ur gazia gatzagaraino eta bidean aparteko biotopoa antze-man daiteke. Era berean, otsoaren presen-tziak berezi egiten du Valderejo eta zer esa-nik ez dago Gorbeiaz. Ingurumen botaniko bitxia topatu dute ANIko kide batzuek Gorbeia-ko Parke Naturalean. Lagin berezi horiek jaso eta erakusketa prestatzen dihar-dute orain.

Etorkin kaltegarriak

Aberatsa da Araba. Gainera, oraindik ez dago Gipuzkoa eta Bizkaia bezain hondatu-ta. Nolanahi ere, berezko natura kaltetzen duten landare mota inbaditzaileak heldu dira. Kaltegarrienetako bat "cortaderia-selloana" da, hots, panpa-belarra. Landare eta animalia espezie kaltegarri hauen ondorioak dagoeneko antzeman daitezke. Bistan da denon esku dagoela natura babestea. Arabako Natur Institutuko kideek gogoz argituko digute bidea ●

EGITARRAUA

INFO+: WWW.IAN-ANI.ORG

OTSAILA

Belartegi digitala

20, ostirala

Belartegi digitala diseinatuko dugu eta landareak sailkatzeko eta belartegia osatzeko aldera argazkiak eskuratzeko lau landa-irteera (apiriletik irailera bitartean) egingo.

Argazki-tailerra

21, larunbata

Naturari begirako argazkilaritza-ikastaro praktikoa non oinarritzko kontzeptuak jorratuko ditugun. Gure argazkiak desenfokatuak, mugituak edo argitasun-maila desegokiarekin zergatik ateratzen diren aztertuko dugu eta gure argazki-makinen mugak ezagutuko ditugu: lau bilera.

Klima-aldaketa: zeure karbono-isuriak neurtzeko aukera

27 eta martxoak 6, ostiralak

Bi karbono-kalkulagailu erabiliko ditugu, gero emaitzak alderatuko ditugu eta horien esanahia aztertuko dugu.

MARTXOA

Aretxabaletan habi-kutxak zintzilikatzea

15, igandea

Ohi bezala, Iñaki Zorrakin gure kidea izandakoaren oroimenez, "La Dehesa"ko hariztira hurbilduko gara, txori intsektujaleek habia egitea errazteko asmoz habi-kutxak zintzilikatzera.

[MAIATZEKO euskaraz ere]



EGUR2

- Zurezko teilatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.
Goiaín Industrialdea
Tl/Fxa: 945 465 921
Tl. 627 417 747
info@egur.es
www.egur.es
01171 Legutiano (Araba)



**eusko
alkartasuna**

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea



**Gazte
Abertzaleak**

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Euskeraz Araban BAI

LAZARRAGA

ARABAR POETA

kike fdz de pinedo

Abenduan Lazarraga idazlearen inguruko jardunaldiak zirela eta, hiru egunez Artiumeko aretoa bete eta saio artistikoek zein hitzaldiek zapore gozoa utzi ziguten bertaratutakoei. **Gidor Bilbaoren Lazarragaren ediziorako bidea**-k hasiera eman zien jardunaldioi. Talde lanean (G. Bilbao J. Lakarra, B. Urgell eta R. Gomez) burutu dute ateratzear dagoen edizioa. Joan Perez Lazarragako, "el poeta" goitizena zuena Larrean jaio zen, seguru asko 1547an, 1575 urtean Arriolara ezkondu zen Catalina Gonzalez Langarikakorekin, 1605ean zenduz. Erdaraz idatzitako familia genealogia eta literatur lanen eskuizkribua idatzi zituen. Azken honetan, % 88 euskaraz dator, erdarazko hainbat poemarekin batera. 52 orri ditu eta gutxienez beste 16 galdu dira. Esku bat baino gehiago antzeman daiteke. Testu nagusiak izkribuaren % 70 betetzen du, eta testu honen herena artzain nobela da -lau pertsonaiaren arteko amodio kate nahasia-. Gainontzekoa askotariko poema eta kantuen bilduma da, erdia baino gehiago maitasunezkoak. Jarraian testuaren azterketaz eta izandako zailtasunez (tipografikoak zein ulermenezkoak) jardun zuen, oraindik % 1arekin arazoak dituztela aitortuz. Lan hau egindakoan, interpretazioa eta azterketa linguistikoa datoz, azken batean, testua irakurleari bere osotasunean ulerbidean uzte alde-
ra.

Ondoren **Koldo Zuazok Lazarraga eta Arabako euskara** saioan Arabako euskaraz gutxi genekiela baina azken 40 urteetan toponimia ikerketek, Gasteizko Landuccioren hiztegia eta hainbat idazleren berri (Betolaza, Gamiz, Lazarraga) izateari esker, gero eta hobeto ezagutzen dugula esan zigun eta hiru ondorio hauek atera daitezkeela: lehenik, Arabako leku gehienetan euskarazko izenak agertzen direla; bigarrenik, Arabako euska-

ra ez dela homogenea, eta mendebaleko ezaugarriak baditu ere, bi eremu, ezker-eskuin, eta erdiko beste bat antzeman daitezkeela; eta azkenik Arabako euskararen eragina Nafarroako Burunda, Lana edo Amezkoaraino iristen dela, baita Goierriara ere. Era bertsuan Arabako ekialdera iristen da Nafarroako euskararen eragina. Azkenik ohartarazi zigun euskalkiak Goi Erdi Aroan sortuko zirela orduko bi hiri nagusietatik, hots, Iruñea eta Gasteiztik. Eguna bukatzeko **Gerardo Markuletak** eta Gidor Bilbaok prestatutako poemien errezitaldi bikainak eta **Olatz Zugastiren** ahotzak eta harpak obra ulertzen, baloratzen eta gozatzen lagundu ziguten. Baita **Intonatione kuartetoak**, **Ortzai antzerki laborategiak** eta **bertsolariak** ere hurrengo egunetan, zorionak!

Bigarren eguna **Joseba Intsaustik** ireki zuen. Araba XVI. mendean nagusiki euskalduna zela eta Gipuzkoa eta Bizkaia baino leku bereziagoa izan zuela euskararen munduan izan zen azpimarratutako lehen ideia. Gero garai hartan euskarari eragin zioten eremu nagusiak zehaztu zituen: 1. Humanismo errenazimendukoa (Etxepare eta Lazarraga); 2. Erlijio erreformak; 3. Estatu nazionalen eraikuntza; eta 4. Amerika koloniala, Durangoko Zumarraga eta Gasteizko Mendieta nabarmenduz. Jarraian eliza-eliteak euskararen gainean jokatu zuen paperaz gogoeta egin zuen. Honekin lotuta, oso ezagunak ez diren eta Araba zein euskararekin lotura izan zuten hiru izen nabarmendu zituen: lehenik, Gasteizko San Frantzisko komentua, frantziskotarren ordenaren eta "Kantabriako probintzia"ren egoitza eta burua izan zena. Handia bezain ikusgarria omen zen. Tamalez, monumentu nazionala izendatzeko bidean zela eraitsia izan zen, bertan Gobernu Zibila paratzeko. Eskandalua izan omen zen. Bigarrena, Juan Bernal Diaz de Luco, andaluziarra baina ama Lukukoa zuena. Trentoko kontzilio-

kidea eta Kalagorriko gotzain izan zen. Predikuak euskaraz egin zitezen apaiz euskaldunak eskatu zizkion Ignazio Loiolakoari zein Gasteizko San Frantzisko komentuari. Azkenik, hirugarrenaz, Mendieta gasteiztarraz, Mexikon ospea lortzeaz gain, asko idatzi zuela eta 'Historia eclesiástica indiana' liburuarekin ospea lortu zuela esan zigun. Bigarren hitzaldian, **Xabi Osoa de Aldak eta biok** bi ideia azpimarratu genituen, batetik, Araban euskara nagusi zela, eta Ekialdeko Lautada zein Mendialdeko II auzitan sorgin ehiza, inkisizioa eta euskal interpreteak agertzen direla. Gainera, hauetako bi "sorgin", Agueda de Murua eta Ana Garcia de Arriola, Larreakoak ziren eta auzipetuak izan ziren Lazarraga hil eta 6 urtera. Ondorioz, inkisizioaren eragina eta euskal elebarraren kopurua uste baino nabarmenagoa izan zen bere garaian.

Egunaren azken saioa, **Zazpi gauza jakin beharrekoak Lazarragari buruz**, Pruden Gartziraren eskutik etorri zen. Aurreiritziak apurtzen saiatu zen zazpi modutan: 1- *Lazarraga arabarra zen*, ez Oñatikoa. Izan ere, leinuaren oinetxea Oñatin badago ere, gure Joan, Araban kokatutako bosgarren belaunaldikoa da. Bigarren mailako leinua zen berea Gebaratarren itzalean hazita. 2- *Izen osoa Joan Perez Lazarragako da*, edo Joan Perez de Lazarraga. Perez, XVI. mendean abizenak finkatze trantsizioan daudenez, abizena bainoago bigarren izentzat hartu behar da. 3- *Noblea zen*. Ez zuen lan egiten, eta seguru asko errentetatik biziko zen. 4- *Ez zen apaiza edo fraidea*. 5- *Ez zen abertzalea*. Anakronismotzat jo behar da interpretazio hau. 6- *Gustuagatik idazten zuen*. Ez zuen bizitzeko idatzi beharrik, Cervantes edo Shakespearek ez bezala. 7- *Euskaraz eta Gaztelaniaz idazten zuen*. Literatura euskaraz, historia gaztelaniaz. Saioa galdera bikoitzarekin bukatu zuen. Zein harreman zuen nobleziak euskararekin? Euskaraz askok jakingo zuten, euren artean euskaraz egingo ote zuten?

Azken egunean **Julen Arriolabengoak XVI. mendeko Ibarguen-Cachopin kronika** zer zen eta zein garrantzia duen azaldu zigun.



Lehenik, egoera txarrean dagoen 70 koaderno-ko kronika historikoa dela argitu zigun. 1570ean hasi eta 1620an beste batzuek bukatu zutena. Datu interesgarri asko emateaz aparte, hainbat euskarazko kantu tartekatzen ditu. Zuian kokatzen den Errodrigo Zarateko kantu ineditoa arakatuz bukatu zuen saioa. Azkenik, **Ernazimendua Lazarragaren literaturan** saioan **Iñaki Aldekoak** ernazimenduko gizontzat jo zuen gure idazlea. Garai hartako eskuizkribuak koaderno bailiran erabiltzen ziren, eta ugariagoak ziren liburuak baino, gehienak galdu diren arren. Gero bere obra orduko literatur joeretan erabat txertatzen dela adierazi zuen, Montemayorrekin *Dianarekin* irekitako artzain nobelen ildoan, hain zuzen, prosa eta poesia tartekatuz. Zaldunen oihartzunak, baina, ez ziren erabat itzali bere garaian, ohikoak baitziren justak edo torneoak, agiri batek erakusten digunez: "...el celebre torneo que se dio en Vitoria...". Eta sorpresa!, zaldun parte-hartzaileen artean **Juan Larrea** dugu, gure Lazarraga ustez ●



m. josean morlesin



zutabea

Arkeologia politika?

t. erlantz urtasun antzano.
historialaria

Biziki gustatu zait urtarileko Geu aldizkaria, esku beltz nabarmenaz jantzi zena, alegia. Atsegin izan dut, bai diseinuz bai ekarpenez eta, zer nahi duzue, sinesten nuena berrindartzekotz eraginkorra suertatu zaidala erran nahi dut.

Ez dut temati izan nahi, baina ustekabeko lurrikara batek bertzerik frogatu ezean, Iruña-Veleia arkeologia lan taldeko burua zen Eliseo Gil Zubillagarengan garai batean emaniko konfidantzari eutsi eginen diot.

Baina eta hemen, tartean, bertze hiru arkeologoen berri ukan dut. Telebistan agertu ziren, Iruña-Veleian lanean aritu zirela aipatu eta bertan buruturiko lana "astakeria" edo

izan zela kamara nahiz flashen aitzinean adierazi zuten. Hots, Eliseo gaiztoa ez ezik, inutila ere omen da.

Baina, orain eta hemen, zalantza bat etorri zait bururat. Hitz batez, zergatik ez zuten balizko hutsune hori salatu duela urte batzuk, balizko lan txarra egin zelarik, egun egin beharrean? Zer aldatu da? Izan ere, arkeologia ere, %100etan, toki guzietan, politika hutsa delakotz. Eta Euskal Herrian egiten ohi dena ez da salbuespena, alderantziz baizik.

Lorraz, pista bat eman nahi dizut, irakurle. Musulmanek prentsa txarra dute, zalantzarik gabe, baina gure arbasoen artean estimatuak ziren, Fitero edota Gasteiz mendikate inguruetan gorde diren euskal kondaia zaharrak lekuko. Hemen, berriz, 2009an, arkeologia munduan agertzen den zeredo-

zerk loturaren bat baldin badu musulman kulturarekin, arabiar inbasoretzat hartzen ei da, eta ez da inoiz mahaigaineratzen bertoko jende anitz, euskalduna, VIII edo IX. mendeetan musulman bihurtzen ari zen erre- alitate sendoa.

Edota, irakurle maitea, garbiago derragun, eta Fermin Balentziak duela 30 urte abesten zuenez, «ahora ya no son los moros los que atacan nuestras fronteras, ahora se llaman cristianos... ¡Van vestidos de chistera! ».

Egoera kafkianoa baino, argia baino argiagoa dela ikusirik, berriz ere modan jarri behar izanen baitugu: "Altzateko jauna, hor zaude nonbait, zure lurrera itzultzeko zain..." ■




geusex

geusex@emaize.com

Argitu nahi duzun sexualitateari buruzko zalantzarik ala jakin-minik al duzu?

Hilerik hile zure galderak erantzungo dizkizugu. Sexualitatearen inguruko arlo desberdinei buruz galde diezagukezu.

Anima zaitetz eta bidali hona zure galderak:



geusex@emaize.com.

Emaize Sexologia Zentroko profesionalak erantzungo dizute.

emaize sexologia zentroa

gizon eta emakumeentzako arreta

bueno monreal I-behea / 01001 gasteiz / 945265896 / www.emaize.com

Aupa, azkenaldian nire lagunekin hitz egiten konturatu naiz gehienei niri gertatzen zaidan berdina gertatzen zaiela: larrua jotzean ez dute orgasmorik, nahiz eta gozatu. Arraroa nintzela uste nuen, baina orain ez dakit. Normala da?



Adin guztietako emakume askok zuk egin duzun galdera bera egiten diote beren buruari, orgasmoa sarketan edo koitoan sentitzea normalena dela ikasi baitugu.

Errealitatea, ordea, bestelakoa da. Nesken genitalen sentiberatasun handieneko aldea alua da: klitoria, ezpain handiak, txikiak eta bajinarako sarrera, kanpo genitalak alegia. Bajinak, hau da, barrurantz doan hodiak, ez du hainbesteko sentiberatasunik, beraz fisiologikoki ez da batere erraza bajinaren estimulazioaz orgasmoak sentitzea.

Arazoa da, askotan, bajina eta zakila antzekoak balira hartzen ditugula eta mutilek koitoaren bidez orgasmoak izateko erraztasuna izaten dutenez, arazoren bat dugula pentsatu egiten dugula, maiz gure bikotekideak ere gauza bera pentsatzen duelarik. Antzekorik balego, klitoria eta zakila izango lirateke eta ez ahaztu klitoria kanpoaldean dugula, beraz... zergatik orgasmoa behin eta berriz koitoaren bidez lortu behar dugula sinetsi?

Hala ere, garrantzitsua da argi edukitzea orgasmoa eta gozatzea ez direla gauza bera. Orgasmoak modu batera zein bestera sentitu, beti segundo batzuetako iraupena izango du. Gozamina, osteria, milaka moduz senti dezakegu: laztanduz, larrua joz, miazkatuz, musukatuz... eta zure irudimenaren arabera beste modu askotan, eta nahi diogun luzera emango diogu, momentuko gogo eta desioen arabera.

Gauza ez da zenbat orgasmo eta ze modutara lortzen ditugun, baizik eta egiten ditugun jolasekin gozatu egiten dugun. Ez al da gozatzea joku erotikoen helburua?

errezeta

diocesanas-mendizorrotzako
ostalaritza eskola

TURROI BIGUNA



Osagaiak (500 gramoko tableta bat egiteko):

100 gramo azukre
Kalitate oneko ezti (200 gramo)
Zuringo bat (20 gramo)
Almendra xehetua (300 gramo)
Birrindutako limoi goilaradatxo bat
Kanela pixka bat

Elaborazio prozesua:

Zartagin batean azukrea eta ezti berotzen dira (suak ez du indar asko izan behar) eta goilara batekin nahasten dira, nahastura homogeno bat lortu arte.

Sutatik kendu eta zuringoa gehitzen zaio nahasturari. Ongi nahastu (10 minutuz gutxi gorabehera) eta berriz sutan ipini, kolorea aldatzen eta pixkat sendotzen hasi arte. Birrindutako limoi goilaradatxoa eta kanela gehitu nahasturari eta ondoren almendra xehetua.

Aipatu osagai guztiak ongi nahastu, ore homogeno bat lortu arte. Paper sulfurizatuarekin forratutako molde batera bota lortutako ore eta ongi estutu.

5 orduz itxaron, turroia desmoldatu eta zerbitzatu■



...OLEŞ EEGITERA GATÓZ...





CLINICAS **VITAL DENT**

ONENAK ODONTOLOGIAN

DENTISTARENGANA JOATEA INOIZ EZ DA HAIN ERRAZA IZAN!

24 DOAKO PRESTAZIO,

AZTERKETA, DIAGNOSTIKOA ETA ERRADIOGRAFIA* BARNE



* ERRADIOGRAFIA HASIERAKO DIAGNOSTIKOAN

INPLANTOLOGIAN ETA ORTODONTZIAN ADITUAK

GORBEA KALEA, 13 TL.945 21 82 60

12 HILABETE INTERESIK GABE ETA 5 URTE ARTEKO FINANTZAKETA

Diagnostikoa, Aurrekontua eta Erradiografia: DOAN*

***ORTOPANTOMOGRAFIA HASIERAKO DIAGNOSTIKOAN**

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

ZINEMASTEIA

VITORIA-GASTEIZ

2009

23

febrero|otsaila



28

febrero|otsaila



+ INFO:
WWW.KREARED.COM

KREA

EXPRESIÓN CONTEMPORÁNEA

Caja Vital Vital Kutxa